

**KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARITZA NAGUSIAREN
TXOSTENA, EUSKAL INSTITUZIOEK 2018AN EUROPAR
BATASUNAREN AURREAN GAUZATUTAKO JARDUEREI
BURUZKOA**

AURKIBIDEA

I. TXOSTEN HONEN ZERGATIA

II. EUROPAR BATASUNAREN ORAINGO TESTUINGURUA

III. EUSKAL INSTITUZIOEK 2017. URTEAN EUROPAR BATASUNAREN AURREAN GAUZATUTAKO JARDUERAK

III.1. Eskualdeetako Lantaldea eta Euskadiren parte-hartzea

III.2. Europar Batasunaren Kontseiluan eta Europako Batzordearen Komiteetan izandako parte-hartzea

III.3. Gobernu-ekintzaren ondorioz EBren aurrean gauzatutako jarduerak

1. Bisita instituzionalak

2. Euskadiko hainbat alderdi European proiektatzea eta Euskal Autonomia Erkidegoak EBko oraingo gaien inguruan kokatzea

3. Beste bisita eta topaketa batzuk

4. Konferentzietan eta eztabaidetan izandako esku-hartzea. Ekitaldi eta informazio-bileren antolaketa eta bertan izandako parte-hartzea

5. EBrekin lotutako sare, erakunde eta foroetan egindako lana

6. EBko zuzenbideko espedienteak jakinaraztea eta komunikatzea

7. EBko gaiak komunikatzea eta hedatzea

IV. MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZAREN ALORREAN GAUZATUTAKO JARDUERAK

V. ETORKIZUNEAN JARDUTEKO PROPOSAMENAK

A. Zeharkako izaera duten proposamenak

B. Alor sektorialera zuzendutako proposamenak

I. TXOSTEN HONEN ZERGATIA

2014ko irailean, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak jarduera berri bati ekin zion, alegia, euskal instituzioek Europar Batasunaren (aurrerantzean EB) aurrean urtean zehar gauzatzen dituzten jarduerak Eusko Legebiltzarraren aurrean aurkezteari. Hala, une hartan, euskal instituzioek 2013an EBren aurrean gauzatutako jarduera esanguratsuenak biltzen zituen txosten bat aurkeztu zen Eusko Legebiltzarrean; gainera, Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusiak hala eskatuta, Agerraldi bat egin zen txosten horren inguruan.

2015eko urrian, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak beste txosten bat aurkeztu zuen, 2014an gauzatutako jarduera nagusiekin. Bada, txosten hori ere jorratu zen Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusiak Eusko Legebiltzarreko Europako Gaien eta Kanpo Harremanen Batzordearen aurrean egindako Agerraldian.

2016an, 2015eko jardueri buruzko txosten bat prestatu zen, baina gero, hauteskundeetarako deialdiarekin lotutako arrazoiengatik, ez zen Legebiltzarrera bidali. Eta 2017an 2016ko jardueri buruzko txostena prestatu zen, eta, zegokion moduan, Legebiltzarrera helarazi zitzaion.

Oraingoan, 2017an gauzatutako jardueri buruzko txosten hau aurkezten dugu.

Jardueren berezko xehetasunei heldu aurretik, Europar Batasunaren oraingo testuingurua (2017) aipatzen da modu laburrean, zeren hori lagungarria baita EBren aurrean gauzatutako jarduerak azaltzeko; Txostenaren amaieran, berriz, etorkizunean jarduteko proposamen batzuk aurkezten dira.

II. EUROPAR BATASUNAREN ORAINGO TESTUINGURUA

Junckerren Liburu Zuria

2017ko martxoaren, Europako Batzordeko presidente Jean-Claude Junckerrek "Europako Etorkizunari buruzko Liburu Zuria" aurkeztu zuen. Berau plan bat da, 2025erako aukeran egon daitezkeen bost eszenario aurkezten dituen 27 Estatu Kideen Europar Batasuna birsortzeko, Erresuma Batuak Europar Batasunetik irtengo dela kontuan hartuta.

"Junckerren Liburu Zuria" izenarekin ezagutzen den dokumentuak bost aukera aurkezten ditu Batasunaren etorkizunerako. Aukera horiek honela laburbildu daitezke:

1. *Eszenarioa*: Berdin jarraitzea. Ezarritako bidetik jarraitzea eta oraingo erreforma-plana aplikatzea.

2. *Eszenarioa*: Merkatu bateratua soilik. Estatuak ez badute borondaterik migrazio, segurtasun edo defentsaren moduko eremuetan kolaboratzeko, kontua izango litzateke markatu bateratuaren lankidetzaren "sinplera" itzultzea. Oraingo askatasunetatik (ondasunak, zerbitzuak, pertsonak eta kapitalak) hiru askatasunetara soilik pasatuko ginateke: ondasunak, zerbitzuak eta kapitalak.

3. *Eszenarioa*: gehiago egin nahi dutenek gehiago egiten dute. "Borondateen koalizioak" sortuko lirateke, baldin eta Estatu talde batek alor jakin batzuetan kolaboratu nahi balu, 27 estatuak sartu behar izan gabe. Horrek abiadura anitzeko Batasun bat ekarriko luke.

4. *Eszenarioa*: Gutxiago egin, baina efizientzia handiagoz. Hau da, lorpenak areagotzea eta azkartzea alor jakin batzuetan (berrikuntza, merkataritza, segurtasuna, mugen kudeaketa,...), eta gainerakoetan gutxiago esku hartzea (eskualde-garapena, osasun publikoa edo gizarte-politikaren atal batzuk...).

5. *Eszenarioa*: Askoz ere gehiago egitea modu bateratuan. Gehiago aurrera egitea hori posible den eremu guztietan. Kideen arteko lankidetzaren inoiz baino askoz ere zabalagoa izango litzateke, eta erabakiak arinago hartuko eta gauzatuko lirateke.

Bere "Europaren etorkizunari buruzko Ikuspegia" izeneko dokumentuan, Euskadik defendatzen du *"lankidetzaren indartuen tresnaren bidez aurrera egiteko aukera; edozein kasutan, lankidetzaren horiek guztiei irekita egon beharko lirateke beti. Idealismoa eta errealismoa uztartzen dituen Europa malguago eta gradualago honen mekanikak bertan integratzeko aukera utzi beharko lieke zabalik arrazoi koiunturalen eraginez planteamendu jakin batzuk ezin konpartitu ditzaketan Estatu kideei"*.

Brexit

2016ko ekainean, David Cameronek erreferendum baterako deia egin zuen, Erresuma Batuak Europar Batasunean (EB) jarraituko zuen edo ez erabakitzeko. Britainiar herritarren % 51,9k Erkidegoaren bloketik ateratzearen alde bozkatu zuen. Ipar Irlandak, Eskoziak, Gibraltarrek eta Londresko gehiengoak EBn jarraitzearen alde bozkatu zuten. 2017ko martxoaren 13an, erreferendumaren ostean, britainiar Parlamentuak onartu zuen Lehen Ministroari Europar Batasunarekin negoziatzen hasteko baimena ematen zion legea.

2017ko martxoaren 29an, Theresa May britainiar lehen ministroak EBren Tratatuaren 50. artikulua ez zen inoiz ere ordura arte aplikatu, eta, hortaz, Europar Batasunari aurrekaririk ez zuen egoera bat planteatu zitzaion.

2017ko ekainean, EBtik ateratzeari buruzko negoziazioak hasi ziren, eta horien lehenengo errondan Brexitarren egutegia ezarri zen. Lisboako Tratatuan aurreikusitakoaren arabera, prozesuak bi urteko epean bukatu behar du, hau da, 2019ko martxoaren 29an. Adostu zen prozesua bi etapatan gauzatuko zela eta etapa bakoitzean akordio bat lortuko zela. Lehenengo etapan, Ateratze-akordioa negoziatzen da, eta bigarrenean Etorbizuneko Harremani buruzko Akordioa.

Akordio bat bi alderdien artean lortzeko ardura oso ezaugarri desberdinak dituzten bi gizonen osatutako negoziatio-talde baten esku utzi zen. EBk Michel Barnier izendatu zuen bere negoziatzailea izateko, eta Erresuma Batuak David Davis. Theresa Mayren Brexiterako planarekin zituen desadostasunen ondorioz, Davisek uko egin zion karguari, eta haren lekua Dominic Raabek hartu zuen une hartan.

2017ko abenduan, negoziatio-taldeek minimoen akordio bat lortu zuten Ateratze-akordioaren 3 gai nagusien inguruan: (1) herritarren eskubideak, (2) finantza-akordioa eta (3) Ipar Irlandaren eta Irlandako Errepublikaren arteko muga. Erresuma Batuak konpromiso hau hartu zuen: Brexiten faktura ordaintzea, Erresuma Batuan bizi diren europar herritarren eskubideak bermatzea, eta Irlandarekin muga zorrotzik ez egotea. Horrek ahalbidetu zuen negoziatioen lehen etaparen bigarren faserantz aurrera egitea.

2017an, Erresuma Batuak Europar Batasunetik ateratzeko 2016ko ekainaren 23an hartu zuen erabakiak jarraitu du gertaeren erritmoa markatzen, bai EBn eta bai, ondorioz, EBko Estatu kideetan.

Euskadi ez da geratu erabaki garrantzitsu horren eraginetik kanpo, zeren ondorio nabariak izango baititu Europar Batasuneko guztiontzat, alor instituzional, ekonomiko eta sozialean.

Testuinguru horretan, Brexitari buruzko Jarraipen Batzorde bat eratu da, euskal gizartearen parte-hartzearekin. Batzordeak osaera mistoa du, hau da, izaera publiko eta pribatua aldi berean; izan ere, herrialdeko administrazio publikoekin batera, ukitutako interes ekonomiko eta sozial nagusiak ordezkatzan dituzten erakundeek ere parte hartzen dute (merkataritza-ganberak, portu-agintaritzak eta unibertsitateak).

Batzordearen helburu nagusia da Erresuma Batuak EBtik ateratzeak dituen ondorioak aztertzea, horrek euskal interesetan duen inpaktua aztertzeaz batera. Hau da, ahalik eta xehetasun handienaz ezagutzea zer ondorio izango dituzten negoziatioek, bai Erresuma Batuan bizi diren euskal herritarrengan eta bai han finkatuta dauden edo herrialde horrekin lotura estua duten euskal enpresa eta eragileengan.

Halaber, arreta zuzentzen zaie Euskadin finkatuta dauden britainiar pertsona, enpresa eta eragileei.

Batzordearen lanaren bitartez, Euskadik Brexitaren aurrean duen egoerari buruzko ikuspegi orokor bat lortu nahi da; horri lotuta, herrialdeko Estrategia bat adostu nahi da Erresuma Baturik Gabeko EBri 2019tik aurrera sortuko zaizkion erronkei aurre egiteko. Prozesu osoan zehar, Batzordeak iritziak trukatzeko foro gisa funtzionatuko du, eta irekita egongo da bere kideen uste, kezka eta iradokizunak jasotzeko.

Lehenengo bilera 2017.04.25ean egin zen, Iñigo Urkullu Lehendakaria buru zela. Bigarren topaketa 2017.07.10ean egin zen, izaera operatiboago batez.

Terrorismoa

Nahiz eta Europak jarraitu duen terrorismo islamistaren jomugan, Europan gertatutako eraso terroristen osoko kopurua nabarmen jaitsi zen 2016ko kopuruaren aldean. Apirilean, Suedian bizi zen uzbekistandar batek pertsona ugariren kontra jo zuen kamioi batez, Stockholmeko erdigunean, eta bost pertsona hil zituen. Zalantzarik gabe, hedabideetan oihartzun handiena izan zuen eraso terrorista Manchester Arenako kontzertu batean maiatzean gertatutakoa izan zen; izan ere, 22 pertsonaren heriotza eragin zuen, horien artean haur batzuk zeudela. Ekainean, ibilgailu batek hainbat oinezko harrapatu zituen Londresko Zubian, 8 pertsonaren heriotza ekarrita.

Ekonomia

2017kan, euroguneak izandako susperraldi ekonomikoa hazkunde sendo eta orokor batean islatu zen.

Eurostatek argitaratutako datuen arabera, Euroguneko ekonomia % 2,5 hazi zen 2017an; 2016ko hazkundera % 1,8 izan zenez, 2017koa izan da azken hamar urteetako hazkunde sendoena, baita azken hogeitaz urteetako luzeena ere.

Hazkunde-tasek euroguneko herrialdeen artean zeukaten sakabanaketa murriztu egin zen, Diru Batasunaren hasieraz geroztik izan duen maila baxuenera iritsiz. Hazkunderaren indarrari esker, lan-merkatuaren susperraldiak erritmo onean jarraitu zuen. Enplegua % 1,6 hazi eta bere maximo historikora iritsi zen; horren eragileetako bat izan zen emakumeek eta adineko langileek inoizko parte-hartze tasarik handienak izan zituztela. Langabezia 2009ko urtarrilaz geroztik izandako maila txikienera jaitsi zen. Guztira, 7,5 milioi lanpostu sortu dira 2013ko erdiaz geroztik, eta zifra horrek konpentsatzen du krisialdian guztira suntsitu ziren lanpostuen osoko kopurua.

Aurreko urteetan bezala, EBZren diru-politikak funtseko rola jokatu zuen suspertze-eta konbergentzia-prozesu horretan. 2017an, gure diru-politikaren transmisioan aurretik zeuden asimetriak desagertu ziren, neurri handi batean, eta finantziazioaren baldintzak minimo historikoetan egonkortu ziren eurogune osoan. Faktore horiei esker, sektore pribatuarentzako kredituak bere hazkunderik handiena izan zuen krisia 2008an hasi zenez geroztik.

Nahiz eta inflazio orokorrak iazko minimoetatik gora egin zuen -urteko batez bestekoa % 1,5 izan zen-, prezioen gaineko barne-presioek ahulak izaten jarraitzen dute, eta azpiko inflazioak ez zuen erakutsi goranzko joera iraunkorrik.

Europako Seihilekoaren baitan, hau da, EBko politika ekonomikoen koordinaziorako urteko zikloaren baitan, otsailean herrialde bakoitzari dagozkion txostenak argitaratu ziren. Dokumentu horietan, EBko Estatu bakoitzaren erronka ekonomiko eta sozialak aztertzen ziren, eta konpondu gabe dauden desoreka makroekonomioken ebaluazio bat ere sartzen da.

Txosten horietan oinarrituta, Batzordeak proposamen espezifikoak formulatu zituen herrialde bakoitzerako, Kontseiluari zuzenduta. Hor adierazten dira hurrengo 12-18 hilabeteetarako Estatu kide bakoitzari zuzentzen dizkion orientabideak, politika ekonomikoaren alorrean. Batzordearen balorazioa da EBko eta euroguneko ekonomia sendotasuna erakusten ari dela, baina oraindik ere badirela zenbait erronka, hala nola produktibitatearen hazkunde geldoa, krisiaren ondorioak -desberdintasunen iraupena barne sartuta- eta batez ere kanpo-faktoreek eragindako ziurgabetasuna.

Alde horretatik, Batzordeak eskatu zien Estatuei euren ekonomien funtsezko mekanismoak indartu zitzatela, tresna hauen bitartez: inbertsioa sustatzea, erreforma estrukturalekin jarraitzea, eta aurrekontu-politika arduratsuak hartuko zirela bermatzea. Fiskalitatearen alorrean, eta Batzordearen gomendioak oinarritzat hartuta, Kontseiluak Kroazia eta Portugalari zuzendutako gehiegizko defizitaren prozedurak itxi zituen ekainean; Greziari zegokiona irailean; eta Erresuma Batuarena abenduan.

Halaber, abenduan mugari garrantzitsu bat lortu zen Ekonomia eta Diru Batasunaren (EDB) etorkizunerako. Hala, Batzordeak bide-orri bat aurkeztu zuen hurrengo 18 hilabeteetarako, EDBan aurrera egitera zuzendutako neurri konkretuekin; horrekin batera, lau ekimen aurkeztu zituen, helburu orokor batez: EDBaren batasuna, efizientzia eta kontuen azalpen demokratikoa indartzea hemendik 2025era arte. Bide-orri horren abiapuntua EDBa gauzatzeko xedez Bost Presidenteek 2015eko ekainean egin zuten Txostenean ezarritako ideiak dira, eta baita EDBa sakontzeari eta EBko finantzen etorkizunari buruzko hausnarketa-dokumentuak ere, hurrenez hurren 2017ko maiatza eta ekainekoak.

Proposatutako lau ekimenak honako hauek dira: Europar Diru Funts bat sortzea; Aurrekontu-ituna Batasunaren esparru juridikoan integratzea; euroguneari egonkortasuna emango dion aurrekontu bat, 55.000 milioi eurokoa; eta ekonomia-eta finantza-ministro bat, Batzordearen presidenteorde eta Eurotaldearen presidente gisa aritu daitekeena.

Migrazioa

Azken urteetan Europara iritsi diren asilo-eskatzailerik eta migratzaileen kopuru handiak proban jarri du beraren erantzuteko ahalmena. Asiloaren egoerari buruzko urteko txostenaren arabera, 2017an 685.000 nazioarteko babes-eskari aurkeztu ziren EBn; horietatik, 160.000 eskari haurrei dagozkie. Krisia hasi zenez geroztik, EBn jasotako nazioarteko babes-eskariak hiru milioi izan dira, gutxi gorabehera.

EBk ezarri duen helburu nagusia da migratzaileen eta errefuxiatuen bizitza babestea, bai bere lurraldearen barnean eta bai hortik kanpo. Alde horretatik, garbi dago ezin Estatuk ezin diola bakarrik aurre egin egoera horri; hau da, erantzun koordinatu bat behar da premian dauden pertsonak babesteko, ardura europar herrialdeen artean banatuz. Hala, 2017an, Europako Batzordeak jarraitu zuen Europako Migrazio Agendaren neurriak aplikatzen, eta, hortaz, jarraitu zuen migrazioa epe ertain eta luzera hobeto kudeatzeko beharrezkoak diren tresnak EBri eskaintzen, batez ere migrazio irregularren, mugen, asiloaren eta legezko migrazioaren alorretan.

Zenbait neurri indartu egin ziren, horien artean honako hauek: erreskate-operazioak, bizitzak Mediterraneo itsasoan salbatzeko; EBren kanpo-mugen babesa; pertsonen salerosketaren aurkako borroka; itzulerari buruzko ekintza-planaren aplikazioa; Europako asilo-sistema komuna erreformatzeko eta bidezkoago egiteko proposamena; EB-Turkia Adierazpenaren aplikazioa; eta babesa behar duten pertsonak birkokatzea eta birfinkatzea.

Guztira, 2015eko irailaz geroztik 33.846 pertsona birkokatu dira, Grezia eta Italiatik Europako beste herrialde batzuetara eramanez. EBko herrialde gehienek birkokapenak egin dituzte, baina batzuek ez dute programan parte hartu. Horregatik, Batzordeak erabaki zuen arau-hauste espedienteak irekitzea Txekiar Errepublikari, Hungariari eta Poloniarri, EBko Justizia Auzitegira eramanez. Birfinkatzeari dagokionez, 26.000 pertsona eraman dira hirugarren herrialdeetatik EBko 21 Estatutara, eta baita Islandia, Liechtenstein, Norvegia eta Suitzara ere. Orobat, irailean Batzordeak programa berri bat iragarri zuen nazioarteko babesa eskatu duten gutxienez 50.000 pertsonentzat, Europara arriskurik gabe iritsi ahal izan daitezen. Programa hau 2019ko urrira arte egongo da indarrean, hau da, 2016ko uztailean Batzordeak proposatu zuen EBko birfinkatze-marko berria onartzen den arte.

Enplegua eta gizarte-politika

Europa bidezkoagoa eta gizarte-dimentsio handikoa lortzeko bidean, Europako Batzordeak gizarte-eskubideen europar Zutabearen inguruko proposamena aurkeztu izanak –apirilaren 26an- inflexio-puntu bat ekarri zuen. Zutabea instituzio arteko adierazpen baten bidez aldarrikatu zen, hau da, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Europar Batzordearen adierazpen bateratu baten bidez, enplegu eta hazkunde bidezkoaren alde azaroaren 17an Goteborgen egindako Goi bileran. Zutabeak hogeitaz printzipio eta funtsezko eskubide ezartzen ditu, hiru kategoriaren inguruan egituratuta: aukera-berdintasuna eta lan-merkaturako sarbidea (hezkuntza, prestakuntza eta ikaskuntza etengabea; genero-berdintasuna; aukera-berdintasuna; eta enplegurako laguntza aktiboa); lan-baldintza bidezkoak (lan seguru eta egokigarria; soldatak; lan-baldintzei eta kaleratzeetan izan beharreko babesari buruzko informazioa; gizarte-elkarrizketa eta langileen parte-hartzea; laneko bizitzaren eta bizitza pribatuaren arteko oreka; lan-ingurune osasungarria, segurua eta ondo egokitua; eta datuen babesa); eta gizarte-babesa eta inklusioa (haurrentzako laguntza eta sostengua; gizarte-babesa; langabezia-prestazioak; gutxieneko errenta; pentsioak eta zahartzaroko prestazioak; osasuna; desgaitasuna duten pertsonen inklusioa; iraupen luzeko zaintzak; etxebizitza eta etxerik gabeko pertsonentzako laguntza; eta funtsezko zerbitzuen irisgarritasuna).

Zutabea gidatzat hartuko da politikak lantzeko, eta erreferentziazko esparrutzat hartuko da Estatu kideen errendimendua enpleguaren eta gizarte-gaien alorretan

neurtzeko. Zutabearekin batera, Batzordeak ekimen konkretu berri batzuk ere aurkeztu zituen, bai legegintzakoak eta bai legegintzaz bestekoak: laneko eta familiako bizitza uztartzeari buruzko Zuzentarau baterako proposamena; gizarte-mintzakideen bi kontsulta, lan-kontratuen arauak modernizatzeari eta gizarte-babesa eskuratzeari buruzkoak; eta lanaldiari buruzko Zuzentarauaren inguruko argibide bat.

Politika komertziala

2017an, EBk eta Japoniak amaitu zituzten Elkartze Ekonomikoko Akordio bat sinatzeko negoziazioak, bi blokeen arteko merkataritza-oztopoak ezabatzeko xedez. Aldi berean, EB eta Kanada euren Akordio Ekonomiko eta Komertzial Globala hasi ziren aplikatzen, behin-behinekoz, irailaren 21az geroztik. Orobat, negoziazio komertzialak hasi ziren Txilerekin, eta Europako Batzordeak proposatu zuen negoziazio komertzialak hastea Australia eta Zeelanda Berriarekin.

Ikerkuntza eta berrikuntza

Ikerkuntza eta berrikuntzaren alorrean, gehien bultzatu dena Horizonte 2020 (2014 – 2020) esparru-programa izan da. Urrian argitaratu ziren programaren azken tarteari (2018 -2020) dagozkion lan-programak.

H2020 aukera handi bat da Euskadirentzat, zeren nazioarteko lankidetzak sustatzeko aukera eskaintzen baitu ikerkuntza eta garapen teknologikoaren alorrean; izan ere, hori garrantzitsua da posizio lehiakorra lortzeko aurrez aurre ditugun gizarte-erronka handien aurrean.

Hala eta guztiz ere, 2017. urteko beste gertaera garrantzitsu bat izan da Ikerkuntza eta Berrikuntzako 9. Esparru Programa prestatu egin dela (2021 – 2027). Alde horretatik, programa horren diseinuaren jarraipena egin da, arreta berezia zuzenduz programa lantzeari begira Batzordeak aurkeztu dituen txostenei, hala nola ikerkuntza eta berrikuntzaren finantziario publikoaren justifikazio ekonomikoari buruzko barne-azterlana, Lamy txostenaren konklusioak, eta Bohemia txostena.

Hurrengo Esparru Programarako iragarrita dauden nobedadeen artean –horien jarraipena egin da jadanik-, Europako Berrikuntza Kontseiluaren (EBK) sorrera dago; beraren helburua izan da abangoardiako eta apurketako teknologiak aukeratzeko eta finantzatzeko gaur egun dauden sistemak optimizatzea, arrazionalizatzea eta sinplifikatzea. Espero da etorkizuneko EBK hori lagungarria izatea arrisku handia, bilakaera azkarra eta merkatu berriak sortzeko ahalmen sendoa dituzten berrikuntzak aurkitzeko eta finantzatzeko.

Merezi du azpimarratzea Euskadik bultzatu eta koordinatzen duela Ezagutza eta Berrikuntzako Komunitate bat etorkizunean gidatzeko hautagaitza, Fabrikazio

Aurreratuaren alorrean. Funtsezko proiektu estrategiko bat da Euskadi europar ezagutza eta ekintzailetzaren aliantza baten burua izan dadin alor horretan.

Energia eta Klima-aldaketa

Europako politika energetikoaren muina neurri multzo batez osatuta dago, helburu hauek lortzera zuzendua: energiaren merkatu integratu bat, hornidura energetikoaren segurtasuna, eta sektore energetikoaren jasagarritasuna.

Europako Batzordeak “Energia garbia europar guztientzat” izeneko Paketea aurkeztu zuen 2016ko azaroan –COM (2016)0860-, Europar Batasunaren lehiakortasunari eusteko xedez, energia garbira zuzendutako trantsizioa energiaren mundu-merkatuak aldatzen ari den une honetan. Paketeak zortzi proposamen legegile hartzen ditu barne, arlo hauei buruzkoak: gobernantza, elektrizitatearen merkatuaren konfigurazio berria (elektrizitateari buruzko Zuzentaraua, elektrizitateari buruzko Erregelamendua eta arriskuen aurrean prestatzeari buruzko Erregelamendua), efizientzia energetikoa, eraikinen efizientzia energetikoa, energia berriztagarria eta EELA erregulatzaileari (Energiaren Erregulatzaileen Lankidetzarako Agentzia) aplikatu beharreko arauak.

Proposamen horien bidez, Batzordeak erakutsi nahi du energia garbirako trantsizioa dela etorkizuneko hazkunde-sektorea; erakutsi nahi du, halaber, EB ondo kokatuta dagoela bere ikerkuntza, garapen eta berrikuntzarako politikak erabiltzeko, trantsizio hori aukera industrial konkretu bihurtzeari begira. Batzordearen datuen arabera, kalkulatu da urtean 177.000 milioi euro mobilizatuz gero, 2021etik aurrera, inbertsio publiko eta pribatuen artean, neurrien pakete horrek % 1rainoko igoera sor lezakeela BPGan hurrengo hamarkadan, eta 900.000 lanpostu berri sortu.

2017ko ekainean, Kontseiluak onartu zuen efizientzia energetikoaren etiketatzeari buruzko Erregelamendua. Erregelamendu berriari esker, kontsumitzaileek kontzientzia handiagoa hartuko dute efizientzia energetikoaz eta etxeko aparatuen energia-kontsumoaz. Horrek lagunduko die energiaren kostuak murrizten eta energia-eskaria moteltzen. Erregelamenduaren azken helburua da Europar Batasunaren helburuen betearazpena segurtatzea, bai 2020rako ezarritako helburu nagusia eta bai klima eta energiari buruz 2030rako ezarritako helburuena.

Segurtasun energetikoari dagokionez, eta Ukrainiaren krisiari erantzunez, Kontseiluak gas-horniduraren segurtasunari buruzko Erregelamendu bat onartu zuen urrian (2017/1938 Erregelamendua). Erregelamenduaren helburu nagusia da Europar Batasunaren segurtasun energetikoa indartzea, kanpoarekiko mendetasuna murriztuz energiaren hornidurarako, eta ahalmena emanaz gas-horniduran gerta litezkeen krisiei arinago eta eraginkortasun handiagoz erantzuteko.

2017an EBk bideratu duen beste zeregin bat izan da aurrera egitea erresilientea den eta ingurumena errespetatzen duen Energiaren Batasunerantz. Alor honetan lortu

nahi den helburua da ekonomia modernizatzea, berotegi-efektuko emisioak murriztuz eta EBko berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatuz.

2017an, Klima-aldaketaren alorrean, europar agendaren ardatza izan da 2015eko abenduan Parisen egindako Klima-aldaketari buruzko Esparru Konbentzioaren Alderdien Konferentzian –COP21- lortutako akordioa. COP horretan lortutako emaitzen jarraipena egin da, eta baita 2030ra arteko europar klima eta energiaren paketearen inplementazioaren jarraipena ere.

Hezkuntza eta Prestakuntza

Hezkuntza eta prestakuntza europar instantzien eskumena ez badira ere, EBk esku hartzen du estrategia eta helburu komunak ezartzeko, jardunbide egokiak konpartitzeko, lankidetzeta eta erreformarako ekimen eta proiektuak bultzatzeko eta mugikortasun-ekintzak sustatzeko. Erasmus Programak jarraitzen du izaten EBko balio erantsiaren aurkezpen-txartel bikaina, eta emaitza konkretu eta frogatuena ere bai.

2017. urtea inflexio-puntu bat izan da Europako hezkuntza-politikarako. Izan ere, 2025rako Hezkuntza Estrategia deritzana indartu du, eta Europako lehentasunezko agendan birkokatu ditu hezkuntza eta prestakuntza. Europako Batzordearen presidentek berak funtsezkotzat jo zituen bai hezkuntza eta bai kultura, Goteborgeko Goi Bileraren baitan. Horretarako, honako elementu hauengatik nabarmentzen den agenda bat onartu zen: Hezkuntzarako inbertsioa EBko Estatuaren BPGaren % 5 izatea; diplomaren elkarrekiko aitortza; bi hizkuntza ikastea, ama hizkuntzaz gain; irakasleen mugikortasuna; ikaskuntza etengabearen potentziala indartzea eta Europako Konpetentzien Agenda berraztertzea; Hezkuntza Digitalaren Ekintza Plan berri bat prestatzea; eta Unibertsitate eta Lanbide Heziketako Zentroen Europar Bikaintasun Sare bat eratzea.

Halaber, EBko Goi Mailako Hezkuntzarako Agenda berriztatua eta Europako Gaitasunen Agendaren berrikuspenera (New Skills Agenda) Europako hezkuntza-agendaren beste mugarri estrategiko batzuk izan ziren. Eskualde-dimentsioak eragin nabaria izanik, bi ekimen horien helburua da bikaintasuna gaitasunen garapenean sustatzea, goi mailako hezkuntza-sistema integratzaile eta konektatua sortzea, eta hezkuntza-enpresa lotura indartzea.

Diplomazia Kulturala, Kultura eta Industria Kultural eta Sortzaileak (IKS)

2017. urtean, aurreko puntuan adierazi den bezala, kultura eta IKSen potentziala sendo finkatu dira europar agendan. 2017. urtean, gainera, 2018. urtea Ondare Kulturalaren Europar Urtea izendatzea erabaki zen, eta horretara zuzendutako lan-agenda onartu zen.

Halaber, Europako Batzordeak aurrera egin zuen Industria Kultural eta Sortzaileek lurraldeetarako duten garrantziaren aitortzan, eta Espezializazio Adimenduaren Europar Estrategiarekin uztartzearen alde egin zuen, horri buruzko etorkizuneko estrategia modulatu dituzten txostenak argitaratuz eta Hiri Kultural eta Sortzaileen 2017ko Monitorea abiatuz. EBk IKSen baitan eskaintzen duen finantziarioak eta bultzatzen duen bermeak ere euren eragina izan zuten agenda, ekimenaren emaitzen ebaluazio bat barne sartuta. Halaber, ikus-entzunezkoen pisua ere sendotu egin da; izan ere, Europako Batzordeak zinemaren nazioartekotzearen alde egin du, eta nolabaiteko irekitasuna erakutsi du hizkuntza ez-hegemonikoen ekoizpen aurrean.

2017. urtean, diplomazia kulturala eta maiatzeko Kontseiluak kanpo-lankidetzak kulturalaren rolari buruz hartutako erabakia gertaera garrantzitsuak izan dira, baita aurrerapenak ere, zeren eskualdeen rola aitortzen baita espresuki diplomazia kulturalaren alorrean. Orobat, Kontseiluak ekintza-plana eta ibilbidea onartu zituen, eta baita EBtik kanpo identifikatutako lehentasunezko herrialdeak ere.

Garapenerako lankidetzak

Erronka globalak, europar dimentsioa -2030 Agendaren esparruan- eta lankidetzak deszentralizatuaren potentzialaren berrazterketa izan dira 2017ko europar agendaren ardatzak. Gisa berean, lankidetzarako europar plataformek Lankidetzak Estrategikoak eta epe luzerako lankidetzarako akordioen esparruak birnegoziatu dituzte Europako Batzordearekin 2017an.

III. EUSKAL INSTITUZIOEK 2017. URTEAN EUOPAR BATASUNAREN AURREAN GAUZATUTAKO JARDUERAK

III.1. Eskualdeetako Lantaldea eta Euskadiren parte-hartzea

Eskualdeetako Lantaldea (aurrerantzean EL) EBko eskualde eta lurraldeak ordezkatzen dituen batzar politikoa da. Maastrichteko Tratatuaren bidez 1992an eratua, 1994ko martxoan hasi zen funtzionatzen, eta harrezkero gero eta aholkularitza-ahalmen eta eragimen handiagoa izan du, bai EBko legedian eta bai europar agenda politikoaren jardunean.

ELek 350 kide titular ditu (eta 350 ordezeko): EBko 28 Estatuetakoko eskualdeetako presidenteak, alkateak, zinegotziak, diputatuak, eta abar. Haien eginkizuna da ordezkatzen dituzten herritarren interesak Bruselan defendatzea, erabateko independentziaz eta betiere Batasunaren interes orokorra bilatuz. Euskadiren kasuan, Lehendakariak jarraitzen du kide titularra izaten, eta haren ordezkoa Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusia.

Europar araudia lantzeko prozesuaren baitan, EBko instituzioek ELen iritzia eskatu behar dute nahitaez jarduera-eremu konkretu batzuetan, zeren eragina baitute euren eskualdeko eta tokiko eskumenetan. Nahitaezko kontsulta-eremuak honako hauek dira: garraioak, enplegua, gizarte-politika, Europako Gizarte Funtsa, hezkuntza, lanbide-heziketa, gazteria eta kirola, kultura, osasun publikoa, Europa barneko sareak, kohesio ekonomikoa, soziala eta lurraldekoa, eta ingurumena eta energia; era horretan, EBren jarduera-eremu gehienak daude sartuta nahitaezko kontsulta-eremuen multzoan. Nahitaezko kontsultez gain, Kontseiluak, Batzordeak eta Europako Parlamentuak ere EL kontsulta dezakete, nahi izanez gero; halaber, ELeK berak bere iritzia eman dezake nahi izanez gero, berak hala erabakita.

Iritzi horiek europar araudiari buruzko irizpenen bitartez adierazten dira; irizpen horiek Batzorde, Kontseilu eta Europako Parlamentura bidaltzen dira gero.

Irizpenez gain, ELeK txostenak egin eta erabakiak hartzen ditu, EBko legediak euren udalerrri eta eskualdeetan duen inpaktua jasotzeko, gaiak EBren agendan sartzeko, eta planteatzen diren arazo politikoei buruz duen iritzia plazaratzeko. 2017an, ELeK **58** irizpen eta erabaki onartu ditu, guztira.

ELeK parlamentu baten moduan funtzionatzen du, aholkularitza-rol hutsa izan arren. Urtean bost edo sei osoko bilkura egiten dira Bruselan. Bertan, Lantaldeko kideez gain, pertsona ospetsuek eta gonbidatutako hizlariak parte hartzen dute –batez ere Komisarioek eta EBko presidentzia une horretan duen herrialdeko goi ordezkariak-, gaurkotasuna duten gaiez eztabaidatzeko xedez.

Lantaldeak partaide hauek ditu: Presidente bat, Lehenengo Presidenteorde bat, 28 Presidenteorde gehiago (bat EBko Estatu bakoitzeko), bost Talde politiko, 63 kidez

osatutako Mahai bat, sei batzorde iraunkor (eta beste horrenbeste "ad hoc" batzorde, beharren arabera), ordezkariak nazionalak, lantaldeak eta eskualde arteko lobby taldeak.

Uztailera arte, Eskualdeetako Lantaldeko Presidente Markku Markkula izan zen; harrezkero, berriz, Karl-Heinz Lambertz da Eskualdeetako Europar Lantaldeko Presidente berria.

2017an Euskadik Eskualdeetako Lantaldean izandako parte-hartzea

Eskualde eta toki mailako ordezkariak-organoko gisa ELe EBko erabakiak hartzeko prozesuan duen eginkizunaren eraginez, Europako araudiari buruzko zuzenketak aurkeztea da parte-hartzearen bide nagusia, eta baita euskal posizioa EBko instituzioei organo horretan helarazteko bide nagusia ere. Horri deitzen zaio ELen aholkularitza-jardura, Europako erabakitzeko-prozesuan.

Gainera, badira beste jardura paralelo batzuk, Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea izan dutenak iaz; horien artean, jardura garrantzitsuenetako batzuk txosten honetan jasotzen dira.

1. Eranskinean kontsulta daiteke Eusko Jaurlaritzak Eskualdeetako Lantaldean 2017an izandako parte-hartzea laburbiltzen duen koadroa. Egindako sei osoko bilkuretatik, Eusko Jaurlaritza bost saiotan egon da.

1. Europar araudiari buruzko zuzenketak aurkezteari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak **168** zuzenketa prestatu ditu, **141** aurkeztu ditu organo horren aurrean, eta lortu du **121** onartuak izatea.

Zuzenketa horiei buruzko informazio konkretua **2. Eranskinean** kontsulta daiteke.

Bigarrenik, eta zuzenketa bat aurkeztu ahal izateko beharrezkoa denez ELeko beste bost kideren sinadura lortzea, 2017an zenbait eskualde eta udalerririk **621 zuzenketa** bidali zituzten Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusira, Eusko Jaurlaritzaren sostengua eskatzeko eta elkarrekin aurkeztu ahal izateko. Horiek guztiak aztertu ondoren, Jaurlaritzak **357 zuzenketa sostengatu zituen**, hau da, jasotako zuzenketen % 57, gutxi gorabehera.

3. Eranskinean kontsulta daitezke beste eskualde batzuek prestatu eta Euskadirekin batera aurkeztu ziren zuzenketak.

Bukatzeko, azpimarratu behar da ezen, Eskualdeetako Lantaldearen jardura guztia aurrera eramateko, beraren kideak aldizka biltzen direla osoko bilkuren aurretik, bai europar talde politikoetan eta bai ordezkariak estataletan.

2. Zuzenketez gain, 2017. urtean zenbait ekitaldi egin dira, Eskualdeetako Lantaldeak antolatuta, eta euskal administrazioetako ordezkariak bertan parte hartu

dute. Ponentzien bidez, gure lurraldean gauzatutako politika konkretuei buruzko jardunbide egokien adibideak azaldu dira; hori guztia esperientziak trukatzeko eta elkarrengandik ikasteko esparru batean, eta eskualde zein udalerriek europar helburuen lorpenari egindako ekarpen gisa.

2.1. Hala, otsailean, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburu Arantxa Tapiak parte hartu zuen Eskualdeetako Lantaldeak Smart Cities eta Iraultza Industrialari buruz antolatu zuen jardunaldi batean, eta bertan aurkeztu zituen Euskadin alor harretan gauzatu diren hainbat ekimen, "Basque Country: efizientzia eta jasangarritasuna" izenburupean. Sailburuak Euskadiko plangintzaren balioa nabarmendu zuen, Espezializazio Adimenduneko estrategia bat duen eskualde industrial gisa; azpimarratu zuen, halaber, fabrikazio aurreratua eta energia, osasunarekin batera, lehentasunezko jarduera-arloak direla.

2.2. Maiatzean, SPRI Taldeko zuzendariak 4.0. euskal industriaren eredia aurkeztu zuen (Basque Industry 4.0 Estrategia), Eskualdeetako Europar Lantaldeak "The Future of Industry in Europe Challenges and Instruments for Local and Regional Authorities" izenburupean antolatutako mintegi baten baitan.

Zuzendariak hainbat puntu azaldu zituen: Basque Industry 4.0.ren aldeko apustuarekin Euskadik izan duen esperientzia; adimena ekoizpen-tresna eta – sistemetan izandako integrazioa; kapazitate eta teknologia emergenteek produktu eta prozesu berrietan izandako aprobetxamendua; material aurreratuek balio erantsi handiagoko irtenbideetan edo prozesu hobetuetan izandako integrazioa; erabilitako baliabideen efizientzia eta jasangarritasuna; eta balio erantsi handiko zerbitzuen integrazioa.

Azken urteetan, Eusko Jaurlaritzak bere Espezializazio Adimenduneko Estrategia – RIS3- definitu du, eta horren bidez zehaztu ditu, beste elementu batzuen artean, industria-ehunean oinarria duten espezializazio produktiboaren arloak eta Euskadiko kapazitate teknologikoak. Arlo horietako bat Fabrikazio Aurreratua deritzana da; horri begira, Eusko Jaurlaritzak Fabrikazio Aurreratuko Estrategia bat garatu du, Euskadiren posizionamendua eta lidergoa sustatzeko oinarri industrialeko ekonomia gisa, ezagutzen trinkoa den fabrikazioa bultzatuz.

2.3. Maiatzaren 3an, Euskadik "Science Meets Regions Seminar 2017" mintegia hartu zuen Donostiako Kursaal Jauregian. Ekitaldiaren antolatzaileak Eusko Jaurlaritzak eta Eskualdeetako Lantaldea izan ziren, eta presidentzian Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako Sailburu Arantxa Tapia eta Eskualdeetako Lantaldeko Presidente Markku Markkula izan ziren. Mintegi honen helburua zen berrikuntzaren alorrean aurrendari diren eskualde eta hirien kasuak aztertzea, eta baita eskualdeek Europaren eraikuntza eta garapenean jokatzeko duten rola ere aztertzea. Gainera, Euskadira egindako bisitan, Markku Markkula Iñigo Urkullu Lehendakariarekin bildu zen.

2.4. Maiatzaren 22an, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailburu Bingen Zupiriak parte hartu zuen diplomazia kulturalari eta eskualdeek kanpo-politika kulturalen jokatzen duten rolari buruzko Europar Foroan; ekitaldia Eskualdeetako Lantaldearen egoitzan antolatu zen, Bruselan, Europar Batasuneko Kultura Ministroen Kontseiluarekin batera.

Foroaren koordinatzaileak Eusko Jaurlaritzak eta Etxepare Euskal Institutua izan ziren, Emilia-Romagna eta Friuli Venezia Giulia eskualdeetako Gobernuen laguntzarekin, elkarrekin gidatzen duten Regional Initiative for Culture and Creativity/RICC europar sarearen baitan.

Euskadik funtsezko rola jokatzen du Europako nazionalitate eta eskualdeek kanpo-lankidetzak kulturalaren estrategiaren duten posizionamenduaren inguruan, eta, izatez, berak gidatzen du prozesu hori europar eremuan. Etxepare Euskal Institutuaren eta Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak EBko instituzioen aurrean egindako lan bateratua funtsezkoa izan da azken urteetan lortutako aurrerapen batzuk lortzeko, dela kulturaren alorrean dela Industria Kultural eta Sortzaileen inguruan (IKS).

Euskadi aurrendaria izan da alor horretan, zeren Etxepare Euskal Institutua EUNIC sarearen kide elkartu gisa kokatu baitu, hau da, Europar Batasuneko estatuetako kultura-institutuak biltzen dituen sarearen kide elkartu gisa; horrekin batera, azpimarratzekoa da Euskadi RICC sareko (Regional Initiative for Culture and Creativity) presidentetako bat izan dela -sare horretan hogeit hamar europar eskualdek parte hartzen dute-; edo Europako Batzordeak finantzatzen duen Creadis 3 proiektuaren lidergoan –Estatu bat eta bost eskualde biltzen ditu proiektuak-.

2.5. Uztailean, Europako Lankidetzak Deszentralizatuak (“Assises”) bi urtetik behin egiten duen bilera egin zen Bruselan. Antolatzaileak Europako Batzordeak eta Eskualdeetako Lantaldea izan ziren, elkarrekin, eta Eusko Jaurlaritzak parte-hartze proaktiboa izan zuen ekitaldian.

Eusko Jaurlaritzak Foroko eztabaida batzuk koordinatu zituen, Periferiako eta Itsasertzeko Eskualdeetako Konferentziaren Garapenerako Lankidetzaren Lantaldea gidatzen duen eskualde gisa, eta baita lankidetzaren alorrean europar plataforma eta nazioarteko erakunde batzuekin batera lan egiten duen lurralde gisa ere.

Bai ELGAK eta bai Europako Batzordeak eta Europako Parlamentuak, PATFORMAekin batera (lankidetzak deszentralizaturako europar plataforma, agintaritzak publikoak biltzen dituen), Euskadi azpimarratzen dute lankidetzak deszentralizatuaren potentzialari buruz 2017an aurkeztu dituzten hiru dokumentu estrategikoetan, eta horrek adierazten du euskal lankidetzak Europa mailako lankidetzak aurreratuenetako eta aintzatetsietako bat dela.

2.6. Euskadik berriro parte hartu zuen, hamahirugarren urtez jarraian, “Open Days” ekimenean, hau da, Europako Eskualde eta Hirien Astearen 2017ko edizioan. Eskualdeetako Lantaldeak eta Europako Batzordeak antolatuta, urteko zita honen helburua da eztabaidak egitea eta jardunbide egokiak trukatzea. Aurten, topaketak “Eskualdeak eta hiriak etorkizun hobe baten alde lanean” lemapean egin dira, eta Euskadik modu aktiboan parte hartu zuen, Euskadiren EBko Ordezkaritzaren koordinazioarekin; halaber, europar agendaren erronkak jorratu zituzten eztabaida eta ekimen batzuen koordinatzaileetako bat izan zen.

Zehazki, urriaren 10ean, Kronikgunek esku hartu zuen biztanleriaren zahartzeari, kronikotasunari eta horren erronkei buruzko europar eztabaidan. Egun berean, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak parte hartu zuen Europako Batzordeak antolatutako konferentzia batean. Jorratutako gaiak enplegua eta konpetentzia digitalak izan ziren. Urriaren 12an, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, RICC/Regional initiative for culture and creativity europar sarearen liderretako bat den aldetik, industria sortzaileen potentzialari, berrikuntzari eta espezializazio adimendunari buruzko konferentzian esku hartu zuten.

2.7. Bukatzeko, abenduan, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailburu Iñaki Arriolak Ekintza Eraldatzailearen europar Sarea banatzeko zeremonian esku hartu zuen, Bruselan, Eskualdeetako Lantaldearen egoitzan. Sari horiek ICLEI (Jasangarritasunaren aldeko Tokiko Gobernuen Sarea), Eusko Jaurlaritza eta Aalborg (Danimarka) hiriaren ekimen bateratu bat dira. 2016ko apirilean sortu ziren, Euskadin, Hiri eta Herri Jasangarrien 8. Europar Konferentzian.

Euskal ordezkariaren partaideak Eusko Jaurlaritzaren Europar Batasunerako Ordezkariak, Ingurumeneko Sailburuordeak eta Ihobe-Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren Zuzendaria izan ziren. Bertan zirela, topaketa bat izan zuten Eskualdeetako Lantaldearen Presidentearekin, eta bilera izan zuten Europako Parlamentuko Ingurumen Batzordearen koordinatzaile Miriam Dallirekin eta Klima eta Energiarako Ekintzaren Komisario Miguel Arias Cañeterekin.

3. Horrekin batera, Euskadik **taldearteko** batzuen jardueren jarraipena egiten du **ELen baitan**, gai hauen inguruan:

- REGLEG-CALRE taldeartekoa (Eskumen Legegileak dituzten Eskualdeak eta Eskumen Legegileak dituzten Parlamentuak);
- Automobilgintzaren taldeartekoa;
- Osasunari buruzko taldeartekoa.

“World Coffees”

Beste alde batetik, Europako Batzordeak eta Eskualdeetako Lantaldeak Europar Batasunaren etorkizunari buruz ireki duten hausnarketa-prozesuaren baitan, Eusko Jaurlaritzak –Eskualdeetako Lantaldearekin batera- hiru hausnarketa- eta eztabaida-jardunaldi antolatu zituen 2017ko iraila eta abendua bitartean, “World coffee” formatuarekin, instituzio publikoen eta gizarte zibilaren iritziak jasotzek xedez, besteak beste eremu hauetan: unibertsitatea, enpresa, gizarte-harremanak, maila anitzeko gobernantza eta gazte-enplegua.

Jardunaldi horien antolatzaileak Eusko Jaurlaritza eta Eskualdeetako Lantaldea izan ziren, foru aldundiekin eta gizarte zibilarekin batera (Orkestra, Gubernance eta Merkataritza Ganberak).

Lehenengo jardunaldia irailaren 25ean egin zen, Bilbon, Deustuko Unibertsitateko Campusean, izenburu honekin: “Europa Berritzailea, enpresen, unibertsitateen eta gizartearen arteko harreman eredu berri baterantz”. Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera, jardunaldi honetan Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuak eta Eskualdeetako Lantaldeak kolaboratu zuten.

Bigarren jardunaldia azaroaren 29an egin zen, Donostian, San Telmo Museoa, izenburu honekin: “Maila askotako gobernantza, paradiploiazia eta estatuz azpiko erakunde zeregina EBn: behetik gorako Europaren aldeko apustua”. Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, jardunaldi honetan Gubernance-Gobernantzaren Euskal Institutuak eta Eskualdeetako Lantaldeak kolaboratu zuten.

Eta hirugarren jardunaldia abenduaren 14an egin zen, Gasteizko Europa Jauregian, izenburu honekin: “Talentuaren ekosistema europarra: gazteentzako aukera handiak”. Eusko Jaurlaritza eta Arabako Foru Aldundiarekin batera, jardunaldi honetan Euskadiko Merkataritza Ganberak eta Eskualdeetako Lantaldeak kolaboratu zuten.

Herritarrekin egindako elkarrizketa-saioetako konklusioak baliagarriak izan ziren Eusko Jaurlaritzaren “Europaren Etorkizunari buruzko Ikuspegia” dokumentua aberasteko. Dokumentua Eskualdeetako Lantaldeari, Europako Batzordeari eta haren presidente Jean-Claude Junckerri bidali zaie.

III.2. Europar Batasunaren Kontseiluan eta Europako Batzordearen Komiteetan izandako parte-hartzea

1. Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek Europar Batasuneko Kontseiluan izandako parte-hartzea

2017an, Europar Batasuneko Gai Ekonomiko eta Finantzarioko Kontseiluaren (ECOFIN) Lantaldeetan parte hartzen jarraitu dugu. Foro horietako parte-hartzea Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru Aldundiak biltzen dituen Zerga Koordinaziorako Organoak zuzentzen du.

Aurreko urteetako txostenetan adierazi zen bezala, Euskadik Lantaldeetan soilik parte hartzen du; Kontseiluaren formazio honen Osoko Bilkura ez dago irekita Euskadiren parte-hartzeari.

Euskal Autonomia Erkidegoaren parte-hartzeari irekita dauden Lantaldeak honako hauek dira:

1. D4 Taldea, Zerga-gaien ingurukoa, bi formaziotan banatzen dena: zuzeneko zergak eta zeharkako zergak;
2. D5 Taldea, Jokabide Kodearen ingurukoa: enpresen fiskalitatea jorratzen ditu. Eta horri dagozkion azpitaldeak.

4. Eranskinean kontsulta daitezke ECOFIN Kontseiluaren Lantaldeek 2017 urtean egin dituzten eta euskal instituzioen presentzia izan duten 39 bileren datak.

2. Eusko Jaurlaritzak Europako Batzordearen Komiteetan izandako parte-hartzea

Autonomia Erkidegoek Europako Batzordearen Komiteetan parte-hartzeari buruzko akordioan arabera, une honetan 2014 eta 2017 bitarteko parte-hartzealdian gaude. Zehazki, 2017. urtean, Euskadik Komite hauen ordezkariak autonomikoa izan du asigatuta: Nekazaritzako Funttsak; Ekoetiketa Komitea; Hiriko Hondakin-uren Komitea; eta Itsas Segurtasunerako eta itsasontzietako kutsaduraren prebentziorako Komitea. Komite horietako 5 bileratan parte hartu da, guztira.

Halaber, 2014-2017 aldian, Euskadik autonomia erkidegoak ordezkatu ditu Horizon 2020 programaren Komite batzuetan. Komite horien ordezkariak-aldia desberdina da gainerako Komiteenaren aldean, zeren Autonomia Erkidegoen ordezkariaren banaketa geroago egin baitzen.

2017ko maiatzaren eta 2018ko maiatzaren arteko aldian, Euskadiri dagokio Autonomia Erkidegoak ordezkatzeko Horizon 2020 programa –Ikerkuntza eta Berrikuntzarako Esparru Programa (2014-2020)- gauzatzen duen Programa Espezifikokoaren Komitean - Formazioa: “Nanoteknologiak, Material Aurreratuak, Bioteknologiak, Fabrikazio eta Transformazio Aurreratuak”. Komite horri dagokionez, ordezkariak-aldian egindako 4 bileretatik 3tan parte hartu da. Kontaktuan egon gara Komite horren aldeko interesa erakutsi zuten Autonomia Erkidego guztiekin, eta bilera bakoitzean sortutako informazio interesgarri guztia bidali zaie, eta baita aurkezpenak, txostenak eta jorrotutako gaien laburpenak ere. Kasu konkreturen bat alde batera utzita, Autonomia Erkidegoek ez dute informazio gehiagorik eskatu. Komite honetan jorrotzen ziren gaiak Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailarentzat duten interesagatik, oso beharrezkoa da EBtik abiatuko diren jarduerak eta ekimenez informatuta egotea, eta, hortaz, arreta handiz jarraitzen ditugu hor jorrotzen diren gaiak.

III.3. Gobernu-ekintzaren ondorioz EBren aurrean gauzatutako jarduerak

Jarraian, Euskadik Europar Batasunaren instituzioen aurrean 2017an gauzatutako ekintza garrantzitsuenak azaltzen dira, gehien errepikatzen diren jarduerak moten arabera, bai Euskadiren eskumenekin lotutako gaiak dagokienez eta bai EBko esku-hartzearen arloei dagokienez.

1. Bisita instituzionalak

Atal honetan zehazten dira, ordena kronologikoan, EBko hiriburura (eta beste leku batzuetara) egindako bisita instituzionalak eta Europako instituzio, eskualde eta herrialdeetako ordezkariak Euskadira egindakoak. Azken bisita horien kasuan, garrantzitsuenak soilik aipatzen ditugu.

- Urtarrilaren 16 eta 17an, Euskadiko GKEen Koordinakundeak lan-bisita bat egin zien europar instituzioei.
- Urtarrilaren 25ean, Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordeak, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendariak eta HAZIko Zuzendariak AREPO (Jatorrizko Produktuen Europako Eskualdeen Elkargoa) sarearen Batzar Nagusian parte hartu zuten, Bruselan.
- Urtarrilaren 31n, lan-agenda bat antolatu zen europar instituzioetan EIKEN/euskal ikus-entzunezkoen sektorearen klusterrarentzat.
- Otsailaren 7an, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako Sailburuak eta Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusiak Europako Batzordeko Presidenteorde Maros Sefcovic bisitatu zuten.
- Otsailaren 28an, SPRIko Zuzendari Nagusiak parte hartu zuen Europako Batzordeak antolatu zuen industriaren europar egunaren lehenengo edizioan. Haren hitzaldiaren gaia Euskadiko eraldaketa industrialia izan zen.
- Apirilaren 27an, Eusko Jaurlaritzako Energia Zuzendariak bilera izan zuen DG Energiako Zuzendariorde Nagusi Gerassimos Thomasekin, Eusko Jaurlaritzaren inbertsioek defizit publikoan dituzten inpaktuak jorrazteko, batez ere jasagarritasunaren dekretuari lotuta (Euskadiko eraikin publikoen efizientzia energetikoa).
- Maiatzaren 2an, SPRIko Zuzendari Nagusiak “EBko industriaren etorkizuna” mintegian parte hartu zuen. Eskualdeetako Lantaldeak antolatuta, Zuzendariak Basque Industry 4.0 estrategia azaldu zuen.
- Maiatzaren 15ean, lan-agenda bat antolatu zen europar instituzioetan Lemoako alkatearentzat eta beraren taldearentzat, EBren enpleguari, immigranteen integrazioari eta gazteriarri buruzko politikak jorrazteko.

- Maiatzaren 16an, Unibertsitateen Sailburuordeak eta Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendariak lan-bisita bat egin zuten Europako Batzordearen Hezkuntza eta Enplegu Zuzendaritza Nagusietara, Unibertsitate-Enpresa euskal Estrategiaren ardatzak kontrastatzeko eta europar agendarekin bat ote datorren aztertzeko.
- Maiatzaren 17 eta 18an, Flandes, Herbehereetako hegoalde, Eskozia, Tampere, Lonbardia, Holandako hegoalde eta Kataluniako eskualde-ordezkaritzek Euskadi bisitatu zuten, Interreg Europe “S34GROWTH” proiektuaren baitan, berrikuntzaren euskal ekosistema ezagutzeko xedez.
- Maiatzaren 17 eta 18an, Energiaren Euskal Erakundeko Zuzendari Nagusiak bilera instituzional batzuetan parte hartu zuen, Euskadin abiatutako proiektu eta ekimen energetikoak bistaratzeko xedez.
- Maiatzaren 22an, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailburu Bigen Zupiriak esku hartu zuen diplomazia kultural eta eskualdeen rola Europa Foroan, Eskualdeetako Lantaldearen egoitzan. Halaber, Foroan Etxepare Institutuko Zuzendariak ere parte hartu zuen.
- 2017ko ekainaren 1ean, Europako Kontseiluaren Tokiko eta Eskualdeetako Botereen Batzarraren Presidente Gudrun Mosler-Törnströmek EUDEL – Euskal Udalerrien Elkartearen urteko ohiko Batzar Nagusian parte hartu zuen, Bilbon, eta topaketa bat izan zuen Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailburu Josu Erkorekarekin.
- Ekainaren 19an, Energiaren Euskal Erakundearen 35. Urteurrenaren ospakizuna antolatu zen Euskadiren Europar Batasunerako Ordezkaritzan.
- Ekainaren 20 eta 21ean, Etxepare Institutuko Zuzendariak bilera bat izan zuen UNESCOren EBrako Zuzendari Paolo Fontanirekin eta EUNIC Globaleko arduradunekin; halaber, EUNIC Bruselako zuzendaritza-batzordearen bileran parte hartu zuen.
- Irailaren 13an, Etxepare Institutuko Zuzendariak EUNIC Bruselako zuzendaritza-batzordean parte hartu zuen eta EUNIC Globalen arduradunekin bildu zen.
- Irailaren 15 eta 16an, Europako Batzordearen DGEACKo eta Ikaskuntzarako Europar Aliantzako kideek Euskadi bisitatu zuten, bertoko egoera ezagutzeko.
- Irailaren 24 eta 25ean, Europako Batzordearen “Kirol” Ataleko Zuzendariondokoaren bisita antolatu zen, Kirol Zuzendaritzaren strategiaren baitan, kirolaren euskal agendaren eta euskal kirol-industrien europar dimentsioa azpimarratzeko.

- Urriaren 18 eta 19an, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) 8 pertsonaz osatutako ordezkariak batek bilerak izan zituen europar instituzioetan eta unibertsitateei buruzko europar plataformetan.
- Urriaren 19 eta 20an, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gazteriako Sailburuordeak parte hartu eta hitz egin zuen Europako Batzordeak antolatutako “Gazte-bermea Espainian: Etorkizuneko ikuspegiak” jardunaldietan. Europako Gizarte Funtzaren eta Gazte-enpleguaren Ekimenaren baitan, jardunaldi horietan eztabaidatu zen nola hobetu daitekeen osagarritasuna eta nola abiatu daitezkeen politika egokiak gazteak modu jasangarrian integratu ahal izan daitezkeen lan-merkatuan.
- Urriaren 25 eta 26an, Etxepare Institutuko Zuzendariak parte hartu zuen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak gidatzen duen CREADIS3 –Smart Specialisation Creative Districts proiektuaren bazkideen lan-bileran. Halaber, bilera bat egon zen Europako Batzordearen Zuzendaritza Nagusi batzuekin, Smart Specialisation-berrikuntza eta industria kultural eta sortzaileen inguruan.
- Azaroaren 7 eta 8an, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Zuzendariak bisita bat egin zuen Bruselara, hizkuntzaren potentzial ekonomikoari buruzko Konferentzian eta NPLD europar sarearen Zuzendaritza-batzordean eta Batzarrean parte hartzeko.
- Azaroaren 16an, Eusko Jaurlaritzako Goi Hezkuntzako Sailburuordeak esku hartu zuen CRPMk BREXIT eta hezkuntzari buruz Galesen antolatu zuen konferentzia batean; halaber, topaketa bat izan zuen Galesko Gobernuaren hezkuntza-arduradunekin eta Mark Drakefordekin, garai hartan Gobernu horretako Finantzen “Cabinet Secretary” baitzen.
- Azaroaren 22an, Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusiak “Abangoardia Ekimena” sarearen Batzar Orokorrean parte hartu zuen, Euskadi ordezkatzuz.
- Azaroaren 22 eta 23an, Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Zuzendariak Brusela bisitatu zuen, eta EARLALL (Ikaskuntza bititza osoan) europar sarearen urteko batzarrean parte hartu zuen.
- Abenduaren 5ean, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordea Bruselara joan zen REGAL sarearen eraketan parte hartzeko (Gastronomia eta Elikaduraren aldeko Eskualdeak).

- Abenduaren 6tik 8ra, bisitak eta lan-bilerak antolatu ziren Eusko Jaurlaritzako Gazteriako Zuzendariarentzat.
- Abenduaren 15ean, Ingurumeneko Sailburuordeak Brusela bisitatu zuen. Sailburua bildu egin zen EBren aurreko Ordezkaritza Iraunkorraren ingurumen-kontseilariekin, 2018ko lehenengo seihilekoan Euskadik Kontseiluan izango zuen ordezkaritza autonomikoa antolatzeko.
- Abenduaren 14an, Etxepare Institutuko Zuzendariak EUNIC Bruselaren zuzendaritza-batzordean parte hartu zuen.

2. Euskadiko hainbat alderdi European proiektatzea eta Euskal Autonomia Erkidegoak EBko oraingo gaien inguruan kokatzea

Enplegu-politikaren eta gizarte-politiken eremuan, Europako Batzordeak gizarte-eskubideen europar Zutabea aurkeztu zuen, hilabete batzuk lehenago irekitako kontsulta publikoko prozesua bukatuz. Eusko Jaurlaritzak kontsulta publiko horretan parte hartu zuen, bere ekarpenak Batzordeari bidaliz. Ekarpene horietan bere egin du planteatutako lehentasuna, alegia, lan-merkatu bidezkoak eta modu egokian funtzionatzen duten eta bidezkoak diren ongizate-sistemak lortzeko beharra. Halaber, bere ekarpenean Eusko Jaurlaritzak erreferente gisa nabarmendu zuen diru-sarrerak bermatzeko euskal sistema, hots, gizarte-inklusioa lortzeko xedez ia 30 urtez indarrean egon den sistema.

Ilido beretik, Eusko Jaurlaritzak bere ekarpenak bidali zituen beste kontsulta-prozesu batera, alegia, Europako Periferiako eta Itsasertzeko Eskualdeen Konferentziak (CRPM) irekitako kontsulta-prozesura; kasu honetan, asmoa zen Europako Gizarte Funtzaren eta Gazte-enplegurako Ekimenaren etorkizunari buruzko esperientziak eta gogoetak biltzea. Prozesua CRPMren txosten baten erredakzioarekin hasi zen, funtsezko mezuekin eta etorkizunerako gomendioekin.

Zahartzearekin lotutako politikei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak parte hartu zuen – eta bere Bruselako Ordezkaritzan hartu zuen- Osasunaren Mundu Erakundeak (OME), Europako Batzordeak eta AGE plataformak (adineko pertsonak eurentzat antolatutako erakundeen europar sarea) antolatutako ekitaldi batean. Saioaren gaia hauze izan zen: EBren ekarpena OMEk edadismoaren aurka antolatu duen kanpaina globalari.

Halaber, 2017ko maiatzaren 19an, Euskadiren EBko Ordezkaritzak parte hartu zuen, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren izenean, Aldaketa Demografikorako Ituneko kideen lehenengo Batzar Orokorrean. 37 kidek parte hartu zuten batzarrean. Eusko Jaurlaritzak Itun horri atxikita dago. Beraren helburua da zahartze aktibo eta osasungarria sostengatzen duten inguruneen garapenarekin konprometituta dauden tokiko eta eskualdeko agintaritzak inplikatzeko, bizitza osasungarriaren itxaropena

luzatzen eta bizitza independentea zein eta adineko pertsonen ongizatea hobetzen lagundu dezaten eta adin guztietarako gizarte bat sortu dezaten. Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak 2016an sinatu zuen Itunaren aldeko atxikimendua.

Migrazioaren alorreko gaiei dagokienez, CRPMk maila askotako gobernantza-ikuspegi bat sustatu du 2017an, migrazioaren kudeaketari dagokionez, eta bere kideekin batera lan egin du lankidetzan alor horretan indartzeko. Horri begira, funtsezko elementu bat da ikuspegi berritzaileak eta esperientzia egokiak eskualde-agintaritzen artean trukatzeari, dela larrialdi humanitarioen kudeaketari dagokionez dela migratzaileen integrazioari eta garapen sozioekonomikoari dagokienez. Helburu horrekin, Eusko Jaurlaritzak parte hartu zuen migratzaileen integrazioaren kudeaketari buruzko jardunbide egokien identifikazioan, errefuxiatuak Euskadin hartzeko AUZOLANA programari buruzko informazioa eskainiz. Ekarpen hori lagungarria izan da migrazioa lekuan bertan kudeatzeari buruz CRPMk egin duen Gaiaren Dokumentua lantzeko.

Halaber, Eusko Jaurlaritzako Europar Gaietarako Zuzendariak CRPMren Buro Politikoak Gozon 2017ko martxoaren 10ean egin zuen bileran parte hartu zuen, "Migrazioa" saio tematikoan; bertan, aukera izan zuen Eusko Jaurlaritzak errefuxiatuen krisiaren inguruan duen planteamendua azaltzeko.

Itsaso eta arrantzaren alorreko gaiei dagokienez, CRPMren Idazkaritza Nagusiak azterlan bat egin zuen Europako Itsas eta Arrantza Funtza (FEMP) Eskualdeetan izandako erabileraz. Eusko Jaurlaritzak bere ekarpenak bidali zituen ekimen horretara, zeren beraren helburua baita zehaztasunez eta xehetasunez aztertzea arrantza eta akuikulturaren sektorearen alde FEMPren bitartez 2014-2020 garaian kofinantzatu diren neurri nagusiak.

Halaber, Eusko Jaurlaritzak DG AGRIk antolatutako kontsulta publikoan ere parte hartu zuen, nekazaritza-politikaren etorkizuneko lehentasunak definitzeko. Modernizatutako eta sinplifikatutako nekazaritza-politika bateratu baten bitartez aurre egin ahal izango zaie nekazaritza- eta landa-eremuek aurrean dituzten erronka nagusiei; gainera, aldi berean, hori lagungarria izango da Batzordearen lehentasun politikoak betetzeko, batez ere enplegua eta hazkundera, eta baita garapen jasangarria ere. Horrez gain, bidea emango du emaitzetan, sinplifikazioan eta subsidiarioritasunean zentratutako aurrekontu bat lortzeko. Batzordeak kontuan hartu zituen kontsultan jasotako ekarpenak, 2017ko amaieran aurkeztu zuen Komunikazio proiektua erredaktatzerakoan; bertan biltzen dira nekazaritza-politika bateratuaren oraingo errendimenduari buruzko konklusioak, eta beraren etorkizunerako planteak litezkeen aukera politikoak ere bai, froga garbietan oinarrituta.

Orobat, Eusko Jaurlaritzak lankidetzan transatlantikoari buruzko *task force*a gidatu zuen, Arku Atlantikoko Batzordearen baitan. Aldi baterako egitura horrek topagune eta eztabaida-foro gisa funtzionatu zuen, Atlantikoaren bi itsasaldeetan kokatutako

eskualdeen artean, eta haren emaitza eskualdeen estrategia transatlantikoen, lehentasunezko gaien eta jarduteko proposamenen inbentario bat izan zen.

Kohesio-politikari dagokionez, Europako Batzordeak Kohesio Foroa antolatu zuen 2017ko ekainean. Foro hori hiru urtetik behin egiten da, eta EBko eskualde-politikarekin zerikusia duten funtseko eragile guztiak biltzen ditu. VII. Kohesio Foroa lehenengo urratsa izan zen Europako Egitura eta Inbertsio Funtzen 2020aren osteko esparrua prestatzeko. Gainera, Foroa Zazpigarren Kohesio Txostena onartu aurretik egin zen, hainbat ordezkariarekin (europar instituzioetakoak, gobernu zentraletakoak, eskualdeetako eta tokiko gobernuetakoak, solaskide ekonomiko eta sozialak, GKEak eta akademikoak) egindako eztabaidaren konklusioak Txosten horretan jaso ahal izateko.

Ordurako, Eusko Jaurlaritzak bazuen lehenengo dokumentu bat prestatuta, etorkizuneko kohesio-politikaren funtsezko gaietako buruzkoa: aurrekontua, aplikazio-eremu geografikoa, Funtzen eskualdekatzea, gobernantza ekonomikoarekiko loturak, eta abar.

Dokumentu hori europar instituzioei eta egokitzat hartutako sareei banatu zitzaizkien, Bruselan, kontuan hartu ahal izan zedin.

Euren Espezializazio Adimendunaren Estrategietan oinarrituta elkarrekin kolaboratzen duten europar eskualdeak biltzen dituen Vanguard Initiative sarean Euskadik izandako parte-hartzeari dagokionez, azpimarratu behar da 2017an sarea Bruselan erregistratu zela ofizialki, lau eskualde fundatzaileekin: Flandes, Emilia-Romagna, Tampere eta Euskadi. Gaur egun, Vanguardiek 32 eskualde ditu bazkidegata.

Gainera, 2017. urtean, Euskadi izan zen Vanguard Initiativearen arduraduna, eta baita haren aurrekontua diseinatu eta betearazteko arduraduna ere.

Ikerkuntza- eta berrikuntza-politikari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak dokumentu bat prestatu zuen Ikerkuntza eta Berrikuntzarako Bederatzigarren Esparru Programaren inguruan duen jarrera azaltzeko. Dokumentua alor horretan diharduten europar sare nagusiei banatu zitzaizkien. Dokumentu horretan zenbait gomendio egiten ziren, hala nola: aurrekontu sendo eta orekatua izatea; Europako Berrikuntza Kontseilua, lankidetzaren berrikuntzaren alorrean sustatzeko tresna gisa; ikerkuntza industrialaren aldeko sostengua zientzia bikainaren eremuan; inaktuaren eta emaitzak merkatura transferitzearen garrantzia; parte-hartze industrialaren bermatzea; parteneriatuekin jarraitzea (PPP eta JTI); sinplifikazioa eta sinergiak, beste batzuen artean.

Klima-aldaketari buruzko politikari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak Europako zenbait forotan parte hartu zuen 2017an, Euskadi Klima-aldaketaren aurkako borrokarekin konprometitutako eskualde gisa kokatzeko xedez, berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko eta energia garbiak lortzeko politika handinahiei esker. Horri begira, CRPMren Klima-aldaketaren Task Force taldean parte hartzen hasi zen, eta sare

horrek klima-aldaketari Egokitzeko Europar Estrategiaren Berrikuspenaren inguruan duen jarrera politikoa lantzen lagundu zuen.

Politika energetikoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak ekitaldi bat hartu zuen bere Bruselako egoitzan, 2017ko ekainaren 19an, Energiaren Euskal Erakundearen sorreraren 35. urteurrena ospatzeko. Ekitaldia baliagarria izan zen Euskadi erreferente gisa kokatzeko politika energetiko handinahia duten eskualdeen artean. Beste alde batetik, CRPMren Energia Batasunari eta Energia Garbiaren Paketari buruzko jarrera politikoa lantzeko prozesuan parte hartu zuen.

Politika industrialaren alorrean, eta Vanguard Iniativen duen parte-hartzearen bitartez, Euskadik kolaboratu du hazkundearen, berrikuntzaren eta inbertsioaren alde Europak etorkizunerako planteatzen dituen politiken inguruko posizionamendu-dokumentuen lanketan. Zehazki, eskualdeetako berrikuntza-ekosistemen osagarritasuna bultzatzearen alde egiten da, eta horretarako planteatzen da partenariatuak sortzea espezializazio adimenduneko estrategiak konpartitzen dituzten eta helburu komunitarantz elkarrekin aurrera egin nahi duten eskualdeen artean.

Halaber, 2017. urtean Euskadik jarraitu du parte-hartze esanguratsua izaten Europako Batzordeak abiatutako eta Vanguard Initiativeren eskualde arteko lankidetzeta-metodologian inspiratutako espezializazio adimenduneko plataformetan. Hala, alde batetik, Euskadik koordinatzen du, Eskoziarekin batera, itsas energia berriztagarrien alorrean elkarrekin lan egiteko konpromisoa duen eskualde multzo bat; bestetik, Provence-Alpes-Cote d'Azur (PACA) eskualderekin batera, Euskadik eskualdeen partenariatu bat gidatzen du *smart grids*en alorrean.

Lehen aipatu denez, maiatzaren 17 eta 18an Euskadik Flandes, Herbehereetako hegoalde, Eskozia, Tampere, Lonbardia, Holandako hegoalde eta Kataluniako ordezkartzen bisita bat hartu zuen, Interreg Europe "S34GROWTH" proiektuaren baitan. Bai lan-bileren eta bai bisita praktikoaren helburua izan zen euskal berrikuntza-ekosistema eta enpresen eskura dauden tresnak xehetasunez ezagutzea; horri lotuta, eztabaidagai egon zen ea eskualdeen arteko laguntza-programa bat sortu ote litekeen, gure eskualdeetako eragile ekonomikoen arteko konexioa hobetzeko.

Zibersegurtasunaren eremuan, Zibersegurtasuneko Euskal Zentroa Europako Zibersegurtasun Erakundeari (ECSO) atxiki zitzaion 2017ko amaieran. ECSOren helburua da segurtasun zibernetikoaren alorreko ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak bultzatzea eta industrian zibersegurtasun-ohitura onak sortzea. Zentroak hainbat erakundetako ordezkariak biltzen ditu: enpresa handiak, ETEak, zentro teknologikoak, klusterrak eta nazio, eskualde eta toki mailako administrazioak.

Merkatu digital bateratua lortzeko abiatuta duen strategiaren baitan, Europako Batzordeak "Enplegu eta Konpetentzia Digitalen aldeko Koalizioa" eratu zuen. EBko Estatuak eta erakunde publiko eta pribatuak biltzen dituen aliantza bat da, helburutzat duena konpetentzia digitalak europar herritarren artean bultzatzea.

Eusko Jaurlaritzak, jakitun egonda gaitasun digitalak eskuratzea funtsezkoa dela gizarte inklusibo bat eta ekonomia lehiakor bat sortzeko, "Enpleguen eta Konpetentzia Digitalen aldeko Koalizio" horren partaidea da.

Hezkuntza eta prestakuntzaren eremuan, Euskadik rol proaktiboa jokatu du bai Lanbide Heziketaren alorrean eta bai goi mailako hezkuntzaren alorrean, europar ekimen estrategiko batzuetan parte hartuz.

Euskal Lanbide Heziketaren (LH) eta goi mailako hezkuntzaren abangoardia eta berrikuntzaren adibide gisa, Euskadi izan zen Europako LHaren ikuspegi estrategikoa ematera gonbidatutako eskualdea, Europako Batzordeak bultzatutako LHaren Europar Astea deritzanaren baitan. Gainera, Euskadik zenbait lan-misio hartu zituen, Europako LH sareen edo EBko Estatuaren ordezkarien parte-hartzearekin, Europako Batzordeak koordinatuta.

2017. urtean, euskal LH sendo finkatu da eta europar sostengua jaso du, bai Europako Batzordearen Hezkuntza eta Enplegu Zuzendaritzaren aldetik eta bai europar instituzio horren Enpresa Zuzendaritzaren aldetik. Ildo beretik, euskal enpresa-sektoreak aintzatespena lortu zuen LHaren alorrean eta ikaskuntzaren alde gauzatzen duen lan bateratuagatik.

Beste alde batetik, unibertsitate-enpresa euskal Estrategia da goi mailako hezkuntza modernizatzeko xedez Europako Batzordeak 2017an bultzatu duen Europar Estrategiarekin bat egin duen lehenengo europar estrategia. Eusko Jaurlaritza, 2016an hasitako lan aktibo baten ostean, lankidetzan estuan aritu zen Batzordearekin; gainera, Europako goi mailako hezkuntzaren modernizazioari buruzko kontsulta publikoan parte hartu zuen.

Bai Erasmus+ Programaren baitan eta bai beste Programa batzuen baitan, azpimarragarria da hezkuntzaren alorrean euskal parte-hartzea duten europar proiektuen kopurua. Horri dagokionez, euskal LHko zentroei eta unibertsitateei laguntzeko egitura bat finkatu da, nazioartekotzen laguntzeko eta europar proiektuetan inplikatzeko.

Kirolaren alorrak ere eragina izan du, zeren europar dimentsioa txertatu baita kirolaren euskal lan-agendan eta estrategian.

Kultura eta Industria Kultural eta Sortzaileei (IKSak) eta diplomazia kulturalari dagokienez, Euskadik bere apustu eta proiektzioa sendotu ditu alor horretan, zeren EBk finantziak ematen baita, INTERREG Europe programaren bidez, CREADIS3/Smart Specialisation Creative District europar proiektuari. Proiektu hori europar proiektioa ematen ari da, IKSen aldeko ekosistema propio baten aldeko apustua finkatuz Euskadin, Espezializazio Adimendunaren Euskal Estrategiaren baitan.

Beste alde batetik, diplomazia kulturalaren europar strategiaren baitan, Etxepare Institutuak parte-hartze aktiboa izan du 2017. urtean, eskualde-dimentsioa

nabarmentzearen aldeko ekintzak eta ekimenak bultzatuz, EUNIC sarearekin eta Eusko Jaurlaritzak gidatzen duen RICC sarearekin batera. Gisa berean, azpimarratzekoa da Europako Batasunak Etxepare Institutua gonbidatu duela Kulturaren Europako Foroan parte hartzera. Halaber, euskal kultura eta sormenaren proiektioak lekua izan du Bruselako agenda kulturean, eta europar dimentsioa, berriz, Donostiako zinemaldian islatu da, beste ekimen batzuen artean.

Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta Euskal Fondoaren eskutik, lankidetza deszentralizatua eta Euskadiren parte-hartzea ere nabarmentzekoak izan dira 2017. urtean. Euskadi eragile proaktiboa izan da lankidetza deszentralizatuaren eta 2030 Agendaren rol berritzaileari buruzko europar elkarrizketa-foroetan eta ekimenetan, eta baita “Europako Elkartasun Kidegoa” europar ekimenaren jarraipenean ere. Euskal politiken koherentziak eta CRPMk lankidetza deszentralizatuari buruz egin duen txostenak –Eusko Jaurlaritzak koordinatuta- interes berezia piztu dute europar instantzietan eta PLATFORMA europar lankidetza-plataforman. 2017an, ELGErekin kolaboratzeari ekin ahal izan zitzaion, garapenerako lankidetzaren alorreko praktika berritzaileei, lankidetza-eredu berritzaileei eta GJH-2030 Agendari buruzko txosten bat egiteko xedez.

3. Beste bisita eta topaketa batzuk

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusitik ehun bilera eta topaketa baino gehiago antolatu dira euskal politika eta ekonomiaren sektore garrantzitsuentzat, Europako instituzioetako eta beste erakunde batzuetako ordezkariekin; helburua zen euskal interesen posizionamenduari buruzko lehentasunezko dossierrak jorratzea, iritziak eta esperientziak trukatzeko eta intereseko harremanak sortzea.

Estatuko Laguntzen dossierren kasu konkretuan, Eusko Jaurlaritzak bere jarrera defendatu eta jakinaraz du Gobernuaren jarduera-alorretan eragina duten espedienteetan, hala nola: (i) arrantzaren alorrean, Indiako Ozeanoan diharduten atunontzien segurtasuna bermatzeko laguntzak; (ii) industriaren alorrean, Gauzatu Industria eta Indartu laguntza-programak (hobekuntza lehiakorra eta garapen ekonomikoa dakartzan inbertsio produktiboa egiten duten enpresentzako diru-laguntzak, Ezkerraldea eta Oiartzualdea bultzatzeko); eta (iii) hizkuntza-politikaren alorrean, euskararentzako laguntza gaztelaniazko hedabideetan.

Lurreko Telebista Digitala hedatzeko laguntzari dagokionez, erabakia gauzatzeko prozesuaren jarraipenarekin jarraitu da, eta baita Auzitegiaren aurrean irekitako prozeduraren jarraipenarekin ere. Gertaera nagusia izan da Espainiak lurreko telebista digitaleko operadoreei emandako laguntza estatala berreskuratzeko Erabakia –Batzordeak hartua- baliorik gabe utzi dela (2017ko abenduan).

4. Konferentzietan eta gaurko gaiei buruzko eztabaidetan izandako esku-hartzea. Euskadirentzat interesgarriak ziren ekitaldi eta informazio-bileren antolaketa eta bertan izandako parte-hartzea

Euskadiren parte-hartzea izan duten konferentzia, ekitaldi eta eztabaiden xehetasunak **5. Eranskinean** aurkitu daitezke, baina jarraian aipatuko ditugu gure ustez garrantzirik handiena izan dutenak.

Lehiakortasun eta enpresaren alorrean, otsailaren 7an, Lehiakortasun eta Azpiegituretako Sailburuak Konferentzia honetan parte hartu zuen Bruselan: "Investing in Europe: building a coalition of Smart cities and regions towards a third industrial revolution". Otsailaren 28an, SPRIko Zuzendari Nagusiak hizlari gisa parte hartu zuen Industry Days ekitaldian, programan sartuta dagoen europar eskualde bakarraren ordezkari gisa. Beste alde batetik, azaroaren 7an, NEIKEReko Zuzendari Nagusiak bioekonomia zirkularrari buruzko foro batean parte hartu zuen, Bruselan. Antolatzailea European Forest Institute izan zen.

Goteborgeko Goi Bileraren baitan, Lan eta Justiziako Sailburu M^a Jesús San Josék Europako Batzordeak ekonomia zirkularrari buruz antolatu zuen ekitaldian esku hartu zuen, azaroaren 16an. Saio horretan, Europako Giza Eskubideen Zutabea aldarrikatu zen.

Enplegu eta gizarte-politikei dagokienez, Europako Batzordearen Enplegu, Gizartegai eta Inklusio Zuzendaritza Nagusiko bi ordezkari hizlari gisa parte hartu zuten gizarte-berrikuntza enpleguari eta gizarte-inklusiori buruzko politika publikoetatik sutatzearen inguruko konferentzia batean. Ekitaldia maiatzaren 18an izan zen, Bilbon, eta antolatzaileetako bat Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte-politika Saila izan zen.

Hezkuntzari dagokionez, UPV/EHUK esku hartu zuen Maritime Days 2017 ekitaldian, CRPM koordinatutako itsas espezializazioari eta nazioartekotzeari buruzko konferentziaren baitan, 2017ko maiatzaren 19an. Gisa berean, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendariak eta EUSKAMPUSeko koordinatzaileak European University Business Forum-en parte hartu zuen, Bruselan, apirilaren 6 eta 7an.

Lanbide Heziketaren alorrean, Lanbide Heziketako Sailburuordeak Internal Market Advisory Meeting-ean (IMAC) parte hartu zuen, martxoaren 16an. Berau Batzordearen eta Estatu Kideen aholkularitza-talde bat da, gai industrialei buruzkoa, 4.0. industriarako eskatzen diren kualifikazioekin zerikusia duena. Halaber, LHko Sailburuordeak LHaren Europar Astearen amaierako saioan esku hartu zuen, azaroaren 24an.

Kultura, IKS eta diplomazia kulturalari dagokienez, maiatzaren 22an diplomazia kulturalari eta eskualde-dimentsioari buruzko Europar Foroa egin zen, Eskualdeetako Lantaldean, Kultura Sailak, Etxepare Institutuak, Europako Batzordeak eta RICC sareak antolatuta. Ekitaldian Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailburu Bingen Zupiriak esku hartu zuen.

Orobat, abenduaren 7 eta 8an, Etxepare Institutuko Kultura Zuzendariak Kulturaren Europar Foroan esku hartu zuen, Milanen, diplomazia kulturalari buruzko eztabaidan. Euskadi izan zen osoko bilkuran esku hartu zuen europar eskualde bakarra.

Euskal kultura eta sormena hedatzeko xedez, irailaren 1etik 3ra bitartean, komikiaren sektoreak eta euskal ilustratzaileek Bruselako BD Jaialdian parte hartu zuten. Ildo beretik, Harkaitz Canok EUNIC sarearen eta Etxepare institutuaren Transpoesie ekimenean parte hartu zuen, Hizkuntzen Europar Egunean, 2017ko irailaren 26an. Beste alde batetik, Ion Fiz eta Eder Aurre euskal diseinugileek Bruselako Modaren Astean parte hartu zuten.

Irailaren 24an, Europako Batzordearen MEDIA ikus-entzunezkoen Europako Foroa egin zen Donostiako Zinemaldian. “Glocal Cinema eraikitzen” atala sartu zen Zinemaldiaren programan, eta “Glocal Cinema” sarearen ikus-entzunezko koprodukzioei buruzko informazio-saio bat egin zen. Gisa berean, Desk MEDIA Euskadi Creative Europe finkatu egin da euskal ikus-entzunezkoen sektorearen eta nazioarteko ikus-entzunezko foroen bazkide gisa.

Lankidetzaren alorrean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak ELGEren txosten/azterlan batean parte hatzen du, alegia, garapenerako lankidetzaren alorreko praktika berritzaileak eta lankidetzaren eredu berritzailea eta GJH-2030 aztergai dituen txosten/azterlanean. Eta, betiere lankidetzaren prozesu berritzaileei lotuta, Euskadik esku hartu zuen "Lankidetzaren deszentralizatuaren assiseak" izeneko Europako Lankidetzaren Foroan, uztailaren 10 eta 11n.

5. EBrekin lotutako sare, erakunde eta foroetan egindako lana

Azpimarratzekoa da Euskadik parte hartzen duela Europako Eskualdeetako Ikerketa eta Berrikuntza Sarearen gobernu-organoetan, sareko Policy taldearen partaidea dela eta energiaren lantaldeko zuzendaritza-batzordean parte hartzen duela.

Gainera, Euskadik parte hartzen du CRPMko Arku Atlantikoko Batzordearen lantaldeetan. Zehazki, 2017an itsas energien eta energia berriztagarrien lantaldearen koordinazioaz arduratu zen.

Halaber, CRPMko Klima-aldaketaren Task Forcen ere parte hartzen du modu aktiboan.

Kulturaren alorrean, Eusko Jaurlaritzak RICC europar sarea koordinatzen du, alegia, 24 eskualde IKSen eta RIS3ren eremuan biltzen dituen sarea. Halaber, Etxepare Institutua EBko Kultura Institutu Nazionalen europar sareko kidea da.

Hezkuntzaren alorrean, Eusko Jaurlaritzak EARLALL sarea koordinatzen du.

Euskadiren parte-hartzea duten sare tematiko guztiak **6. Eranskinean** daude jasota.

6. EBko zuzenbideko espedienteak jakinaraztea eta komunikatzea

Lehen aipatu den bezala, euskal instituzioen ohiko lanaren gai batzuek Europar Batasunaren aurrean jardutera eramaten dute berez. EBko zuzenbidea betetzetik ondorioztatzen diren betebeharrak dira, batez ere. Horri dagokionez, aipatzekoa da Europako Gaietarako Zuzendaritza gauzatzen duen aholkularitza-lana, Jaurlaritzako Sailei zuzendua, Estatuko Laguntzen eta EBko Zuzenbidearen arloko arau-hausteen Prozeduren eremuan, Estatuaren Administrazioarekin egiten diren komunikazioak Autonomia Erkidegoan koordinatzen dituen organo gisa.

Alor horretan, azpimarratzekoak dira, alde batetik, Lehiaren Zuzenbidearekin eta Estatuko Laguntzekin zerikusia duten jarduera guztiak. Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuko laguntzen espedienteak jakinarazten zaizkio Europako Batzordeari, hala exijitzen den kasuetan; halaber, Batzordea informatzeko betebeharrak betetzen dira, honen eskariei erantzunez, dossier konkrituak landuz eta laguntzei buruzko datu estatistikoak bidaliz.

Ez da beharrezkoa izan bilerarik antolatzea Lehiaren DGrekin, Bruselan, estatuko laguntzei buruzko espedienteak bideratzeko.

EBko Zuzenbidearen arloko Arau-hausteen Prozedurei dagokienez, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusitik gure betebeharrak betetzen jarraitzen dugu, alegia, informazioa eta dokumentazioa bidaltzen ditugu, eta aholkularitza eskaini eta irtenbideak bilatzen ditugu Euskal Autonomia Erkidegoa inplikatzeko dituzten prozedura guztietan.

7. EBko gaiak komunikatzea eta hedatzea

Aurreko urteetan egin den bezala, 2017an ere KHINaren webgunea eguneratu zen, euskadi.eus atarian.

Aurreko urteetan bezala, Europari buruzko informaziorako Euskadin dagoen tresna eta atari nagusia gainbegiratzeko eta optimizatzen jarraitu dugu, haren jarraipena egiteaz batera: EIES - Europako Informazioaren Euskal Sarearen webgunea, www.revie.euskadi.eus, euskadi.eus atariarekin lotuta dagoena.

Orobat, gure instituzioek Europan gauzatu dituzten jarduera interesgarri guztiak irekia.eus atarian jakinarazi dira, eta horien berri eman zaie ohiko prentsa-kontaktuko guztiei.

IV. MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZAREN ALORREAN GAUZATUTAKO JARDUERAK

“**Akitania Euskadi Euroeskualdea**” izeneko **Lurralde Lankidetzarako Europar Taldea (LLET)** Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 5eko 1082/2006 Erregelamenduan eta Erregelamendu horren aplikaziorako beharrezkoak diren neurriak hartzen dituen urtarrilaren 18ko 37/2008 Errege Dekretuan oinarrituta eratu zen; eta, horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Akitaniako Eskualdeak 2011ko abenduaren 12an sinatu zituzten Hitzarmen eta Estatutuen bitartez.

2016. urtean, Hitzarmena eta jatorrizko Estatutuak aldatzeko beharrezkoak ziren lanak gauzatu ziren, Euroeskualdearen lurralde-eremua handitzeko eta bertan Nafarroako Foru Komunitatea sartzeko, eta testu berri horiek 2017ko urtarrilaren 30ean sartu dira indarrean. Horrenbestez, 2017ko ekitaldia izan da Nafarroako Foru Komunitatea Euroeskualdearen partaide formala izan den lehenengoa, izen berria hartuta: "Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea". Haren parte-hartzearen eskutik gora egin du Euroeskualdearen urteko aurrekontuak: 1.110.000 eurotik 1.650.000 eurora pasatu da.

LLETaren helburu nagusia da lankidetzak-ekintzak gauzatzea Euroeskualdea osatzen duten hiru lurraldeen garapen ekonomiko, sozial eta kulturalari laguntzeko. Gisa berean, helburutzat hartzen du Euroeskualdea ordezkatzeko, bai tokiko, eskualdeko eta nazio mailako instantzietan eta bai Europakoetan eta nazioartekoetan.

Euroeskualdeak urtero gauzatzen duen jarduera garrantzitsu bat da mugaz gaindiko proiektuei zuzendutako laguntzen deialdia egitea, Bidasoaren bi aldeetako erakundeen arteko lankidetzak sustatzeko.

2017an, honako arlo hauetan finantzatu dira proiektuak:

- Kultura, hezkuntza, gazteria, lanbide-heziketa, kirola eta eleaniztasuna: lehenengo deialdia Euroeskualdeko estrategiaren 1. ardatzera soilik zuzentzen da, hots, “Euroeskualdeko hiritartasuna” deritzan ardatzera, eta 400.000 euroko zuzkidura du. Deialdira 51 proiektu aurkeztu ziren, eta horietako 33k Akitania Berriaren, Euskadiren eta Nafarroaren arteko lankidetzak islatzen zuten (proiektu guztien % 65, gutxi gorabehera). Proiektuen % 8k Akitania Berriaren eta Nafarroaren arteko lankidetzak garatu nahi zuten, eta % 27k Akitania Berriaren eta Euskadiren artekoa.

Urtero bezala, Euroeskualdeko Batzorde Eragileak aukeratze-ahalegin sakona egin behar izan du, eta horren ondorioz 23 proiekturi esleitu dizkie diru-laguntzak. Batez besteko zuzkidura 17.400 euro dira proiektu bakoitzeko.

- Bigarren deialdian ireki diren sektoreak honako hauek izan dira: sektore aeronautikoa eta aeroespaziala, (bio)osasuna, nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien industria, energia berriztagarriak, itsasoko eta kostaldeko baliabideak, eta basogintza, zura eta eraikuntza jasangarria. Deialdi honetan, aurreneko aldiz sartu dira Euroeskualdeko estrategiaren 2. ardatzak – “Ezagutzaren ekonomia - berrikuntza – enpresen lehiakortasuna”- lehenesten dituen arlo guztiak. Zuzkidura 300.000 euro izan dira, eta aurkeztu diren 21 proiektuen artetik 5 aukeratu eta finantzatu dira. Proiektuen batez besteko zuzkidura 60.000 euro dira.

Aurkeztutako proiektuen artean, alderdi jakin batzuk lehenetsi dira diru-laguntza jasoko zituztenak aukeratzekoan. Alderdi horien artean honako hauek daude:

- Proiektuaren interesa eta originaltasuna.
- Proiektuaren inguruan garatutako animazio-programaren kalitatea eta aberastasuna.
- Inplikaturako eragile multzoaren askotarikotasuna eta lurralde-ordezkarritasuna.
- Eragileen ibilbidea.

Akitania / Euskadi Euroeskualdaren Plan Estrategikoa, 2014ko abenduaren 19an Hendaian aurkeztua, LLETaren urte anitzeko “bide-orria” da. 4 lehentasun nagusiren inguruan dago egituratuta, eta horien arabera gauzatu dira 2017ko ekitaldiko jarduera garrantzitsuenak, zenbait tresnaren bitartez, hala nola Hitzarmen edo Parteneriatu estrategikoak edo lehen aipatu ditugu mugaz gaindiko laguntzetarako deialdiak.

Parteneriatu Estrategikoei dagokienez, 2017ko ekitaldian lankidetzak berririk sinatu ez bada ere, lehendik sinatutako batzuk abiatu dira ekitaldi honetan; beste kasu batzuetan, berriz, lankidetzak ebaluatu dira eta berriztatu behar zirela kontsideratu da.

2017an euren lehen urratsak egin dituzten Parteneriatuak honako hauek izan dira:

- “Aquitaine.eus”. Euskal sorkuntza-lan kulturalak Akitanian mugitzeko eta hedatzeko eta mugaz gaindiko harreman artistikoak sortzeko Euroeskualdearen barnean. Horri begira, Etxepare Institutuaren, Euskal Kultur Erakundearen eta Nafarroako Gobernuaren Kultura Zuzendaritzaren arteko lankidetzak honek 50.000 euro jaso ditu, eta horrek ahalbidetu dio kulturaren eremuko zenbait azokatan parte hartzea.
- Zubiak: Mugaz gaindiko irratzi-programak bere programazioarekin jarraitu du 2017an, Euskalerrria Irratia nafar bazkide gisa gehituta. Finantziazioa 15.000 euro izan dira.

Beste alde batetik, aztertu egin dira jadanik abiatuta dauden Parteneriatu Estrategikoen emaitzak, eta berriztatu egin behar zirela kontsideratu da. Beste batzuen artean, honako hauek azpimarratu behar dira:

- “Euroeskualdeko beka”. Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako unibertsitateek (AEN sarean bilduta) eratutako aliantza honek, Akitaniako Unibertsitate eta Establezimenduen Komunitateak (COMUE) bideratuta, ikasleen mugikortasuna sustatzen du. 2017ko ekitaldian emandako 45.000 euroko diru-laguntzari esker, 37 ikasle inguru mugitu ahal izan dira.
- “Euroeskualdeko nazioarteko bikaintasun campusa”. Euskampus Fundazioak eta Bordeleko Unibertsitateak gauzatuko proiektu honen helburua da Euroeskualde mailako unibertsitate-eremu bat sortzea. Aurten, azpimarratzekoa da ekainaren 26 eta 27an egindako 3. sinposioa, 350 ikasle eta irakasle bildu zituena (esleitutako diru-laguntza: 6.000 euro).

Euroeskualdeko prestakuntza eta enplegurako estrategia

2017an, POCTEFaren (Espainia, Frantzia eta Andorraren arteko Lurralde Lankidetzarako Programa 2014-2020 aldirako) lehenengo deialdian aukeratutako “ENPLEGUA: Akitania-Euskadi Euroeskualdeko enplegu-arro baten garapena” izeneko proiektuak aurrera jarraitu du, bertan aurreikusitako ekintza batzuk gauzatuz:

- Mugaz gaindiko enpleguaren egoerari buruzko diagnostiko bat egitea, berrogeita hamar bat eragile inguru abiapuntutzat hartuta: enplegu-zerbitzu publikoak, garapen-agentziak, enpresariak, merkataritza-ganberak, eta abar.

- Langileak eta enpresak informatzeko atari bat sortzea, bai enpresa-ehunarentzat eta bai langile zein langabeentzako erabilgarriak diren informazio guztiak biltzeko. Horri esker, informatuta egongo dira beste lurraldeko aukerei eta lan-eskubide eta –betebeharrei buruz.

Orobat, urriaren 6an Euroeskualdeko Lanbide Heziketako Jardunaldien 2. Saioa – COP- egin da, LLETek, CMA 64k (Chambre de Métiers et de l'Artisanat des Pyrénées Atlantiques) eta Ikaslan Gipuzkoak sinatutako Partenariatu Estrategikoak finantzatuta.

Garraioak eta mugikortasuna

POCTEFAren lehenengo deialdiaren baitan 2016ko maiatzean aukeratutako “Transfermuga 2” proiektuak bere bidetik jarraitu du. Proiektu honen helburua da mugaz gaindiko garraioaren eskaintza garatzea eta hobetzea, eta baita intermodalitatea eta multimodalitatea ere, berrikuntza irekia garraioaren eremuan sustatzeaz batera, bidaiarientzako informazioa hobetzeko xedez.

Zehazki, garraioen eremuan jarduera hauek gauzatu dira:

- Legediari eta eskariari buruzko azterlana: mugaz gaindiko trenbide-zerbitzuen eskaria aztertzeko eta zerbitzu horien azterketa juridiko bat egiteko.
- Frantziako aldiriko trenak (TER) Iruneraino luzatzea.
- Euskotrenen Hendaiako geltokia handitzeari buruzko azterketa.
- Informazio-panela Hendaiako geltokia.
- Bidaiarientzako informazio-atari bat egitea.

Eleaniztasuna

POCTEFA 2014-2020ko Programazio Batzordeak programaren bigarren deialdian aukeratutako proiektuak onartu zituen 2017ko azaroan, eta horien artean ESKOLA FUTURA proiektua dago: mugaz gaindiko prestakuntza-programa bat, irakasle elebidun (frantsesa-euskara/okzitaniera) izan nahi duten mugaren bi aldeetako ikasleei irekia.

OPLBrekin (Office public de la Langue Basque) eta OPLOrekin (Office public de la Langue Occitane) lankidetzan estuan diseinatuta eta garatuta, Pirinioetako bi aldeetako 7 unibertsitatearen parte-hartzearekin garatzen da. Frantsesa, euskara eta okzitaniara ikasteko prestakuntza trinkoak proposatzen dizkie ikasleei, eta hauek beka bat eskuratu ahal izango dute mugikortasunak, ostatuak eta unibertsitateko matrikulak sortzen dituzten gastuei aurre egiteko.

Pirinioetako Lan Komunitatea (PLK) 1983an eratu zen, eta honako partaide hauek ditu: Akitania Berria, Okzitania, Katalunia, Aragoi, Nafarroa, Euskadi eta Andorrako Mugaz gaindiko Lankidetzarako Erakundea. 2016ra arte, Frantziaren aldetik hiru eskualde ziren. Gero, eskualdeak mugatzeari buruzko 2015-29 Legea onartu zenean, hirurak lehen aipatutako bi eskualdeetan bildu ziren: Akitania Berria eta Okzitania. Horrenbestez, 2017an lan egin da PLKren Partzuergoaren administrazio arteko Hitzarmenaren eta Estatutu berrien erredakzioan eta berrikuspenaren onarpenean, Frantziako kideen bat-egitea eta izen-aldaketa eguneratzeko, Batzorde Eragilearen barne-araudia eguneratzeaz batera. Orobat, Partzuergoa formalki atxiki zaio Aragoiko Autonomia Erkidegoaren Administrazio Publikoari.

PLK da Espainia, Frantzia eta Andorraren arteko 2014-2020ko Lurralde Lankidetzarako Programa Operatiboaren (POCTEFA) Kudeaketa-agintaritza. Programak ia 190 milioi euro jasotzen ditu EGEF Funtsetik, deialdietan onartzen diren mugaz gaindik proiektuetako gastuen % 65eraino finantzatu ahal izateko.

POCTFA 2014-2020ren lehenengo deialdia 2015an egin zen. Urte horretan, EGEFen 71,2 milioi euro programatu ziren Pirinioetako mugaz gaindiko lurralderako, 58 proiektu programatzearen bitartez. Zenbateko hori Programaren osoko zenbatekoaren % 40 da.

2017an, alde batetik, lehenengo deialdian programatutako 58 proiektuen jarraipena egin zen; eta, bestetik, bigarren deialdiaren aukeraketa-prozesua egin zen. Kasu honetan ere, EGEFek Programaren % 40 finantzatu zuen, hau da, 71,2 milioi euro, eta 62 proiektuaren aukeraketa egin zen behin-behinekoz.

2017an, PLKren Batzorde Eragilea 7 aldiz bildu zen (otsailak 21-22, apirilak 5-6, maiatzak 23-24, ekainak 20, irailak 19-20, urriak 21 eta azaroak 8). Nouvelle-Aquitaine Eskualdeak bere presidentzia-aldiaren bigarren urtea egin du. 2017ko azaroaren 9ko Osoko Kontseiluan, berriz, presidentzia Aragoiko Gobernuaren eskutara pasatu zen.

V. ETORKIZUNEAN JARDUTEKO PROPOSAMENAK

A. Zeharkako izaera duten proposamenak

Europaren Etorkizunari buruzko eztabaidaren esparruan, Eusko Jaurlaritzak 2017an hasi zuen bere ikuspegia definitzeko bidea, kontuan hartuta Europako Batzordeak plazaratu dituela Europaren etorkizunari buruzko hausnarketa-eszenarioen liburu zuriak. 2018an definituko da Eusko Jaurlaritzak Europaren etorkizunari buruzko eztabaidari egingo dion ekarpena, honako alderdi hauek barne sartuta: zutabe sozial eta ekonomikoa, lehiakortasuna, jasangarritasuna, nazioartekotzea, elkartasuna eta eremu politikoa.

Orobat, 2018an Eusko Jaurlaritzak proposamen bat egingo die eskumen legegileak dituzten EBko eskualdeei, eskualde horiek EBren etorkizunaren definizioa bistaratzera zuzendutako jarduera-bide bat hasteko xedez, maila askotako gobernantza erreal bat lortzeko nahia azpimarratuz. Alde horretatik, ekarpenak egingo zaizkio Europako Batzordeak 2017ko azaroan eratu zuen Taske Force bati, alegia, subsidiariorotasunari, proportzionaltasunari eta “gutxiago egitea modu eraginkorragoan” deritzanari buruz eraturako Taske Forceari.

Gisa berean, Eusko Jaurlaritza bere posizionamenduak lantzen ari da EBren urte anitzeko (2021-2028) finantza-esparru berriaren aurrean; asmoa da eragin erreal izatea etorkizun hurbilean abiatuko diren eta Europako Batzordeak 2018ko maiatzean aurkeztuko dituen finantziazio-tresna eta politika berrietan.

Euroeskualdeari dagokionez, 2018rako ekintza hauek aurreikusten dira, beste batzuen artean:

Bi proiekturen deialdia egitea 2018rako, 2017ko eremu berberetan, hau da:

- “Kultura, hezkuntza, eleaniztasuna, kirola eta gazteria”
- “Ezagutzaren Ekonomia, Berrikuntza eta Enpresen Lehiakortasuna”

400.000 eta 300.000 euroko aurrekontuekin, hurrenez hurren.

Gainera, bi Partenariatu estrategiko berri bukatuko dira. Mugaz gaindiko izaera duten aliantza berrien bilaketan, Euroeskualdeak bi Partenariatu Estrategiko berri sinatu nahi ditu 2018 urtean, bata mugaz gaindiko errugbi-liga "amateur" bat sortzeko eta bestea "Pie Noir Euskal Txerria" sustatzeko (Porc Basque- Livre Généalogique).

PLKari dagokionez, etorkizunera begira aurreikusten den jarduera nagusia da Pirinioetako Plan Estrategiko bat lantzeko hasitako lanekin jarraitzea, datozen 5 urteetako garapenaren orientabide eta lehentasunezko ekintzak ezartzeko xedez. Horren asmoa da Pirinioetako dinamizazio-jarduera propioak POCTEFaren kudeaketa-esparrutik kanpo gauzatzea.

B. Alor sektorialera zuzendutako proposamenak

Zein dira 2018. urterako eta hurrengoetarako EBn aurreikusita dauden jardunbideak, politika publikoen alorrean? Zer proposamen sektorial konkretutan lan egingo du Euskadik alor horietan?

Enplegu eta gizarte-politiken alorrean, Batzordeak proposatu du EBren gizarte-dimentsioa indartzea; horri begira, 2017an Gizarte-eskubideen Europar Zutabea aurkeztu zuen, proposamen legegile batzuekin batera. Horien artean, familiako eta laneko bizitza uztartzeari buruzko proposamena dago. Gainera, Zutabea Europako Seihilekoarekin lotuta egongo da, hau askoz ere gehiago zentratuko baita enpleguan eta gizarte-gaietan. Politika horien alde egiteko, Batzordeak proposamen bat egin du EBren 2021 eta 2027 bitarteko aurrekonturako, alegia, Europako Gizarte Funtsak 100.000 euroko aurrekontua izan dezala, horren bidez jarraitu ahal izateko finantzatzen gazte-enplegua, langileen birziklapena eta haien prestakuntzaren hobekuntza, gizarte-inklusioa eta pobreziaren murrizketa.

2018an, gai horien guztien jarraipena egingo da, eta, aldi berean, Europako Gizarte Funtsaren 2014-2020ko programa operatiboa gauzatzen jarraituko da Euskadin, 48.000 pertsona baino gehiago atenditzeko –aurreikusitakoaren arabera-.

Beste alderdi garrantzitsu bat Europak aurrean duen erronka demografikoa da, zahartzen ari den kontinente bat baita. Europako Batzordeak zahartzeari buruzko ekimen batzuk jarri ditu mahai gainean, horien artean Zahartze Aktibo eta Osasungarriari buruzko Berrikuntzarako Europar Elkarte, Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea duena. 2018an, Eusko Jaurlaritzak jarraituko du Elkarte horretan parte hartzen, eta beste eragile interesatu batzuekin kolaboratzeko aukerak bilatzen jarraituko du.

2018. urtea funtsezkoa izango da migrazioari buruzko europar politika globalerako, eta Batzordeak lanean jarraituko du Europako Parlamentuarekin, Kontseiluarekin eta Estatu kideekin migrazio-krisiari erantzun komun, eraginkor eta koordinatua emateko, elkartasun eta ardura printzipioen esparruaren baitan. EBren ahalegin bateratuek

emaitza batzuk lortu badituzte ere, egoera oso ezegonkorra da oraindik ere, migrazio-presioagatik eta Europako kostaldera heltzen direnen kopuruaren igoeragatik, kontuan hartuta helduerak ibilbide batetik bestera aldatzen direla, urtaroen arabera igoz edo jaitsiz.

Batzordearen birfinkapen-programa berriaren baitan, hogeit hamar mila kidek 50.000 plaza baino gehiago konprometitu dituzte errefuxiatuentzat. Alde horretatik, Euskaditik jarraituko dugu korridore humanitarioen bidea sostengatzen, bisa humanitarioak emateren bitartez, nazioarteko babesa behar duten pertsona kalteberak Europara ekarri ahal izateko, modu legal eta seguruan; horrekin batera, beste helburu bat da pertsona horiek akonpainamendu sozial globala jaso ahal izatea harrerako komunitatean eta hor integratu ahal izan daitezela.

Gai ekonomiko eta finantzarioen eremuan, hilero egiten diren ECOFIN Kontseiluen eta Eurotaldeen bileren jarraipena egiten jarraituko da, eta baita 2018ko Europako Seihilekoaren prozesuaren etapan jarraipena ere. Ildo beretik, arretaz aztertuko dira Bide-orriaren inguruan eta EDBan aurrera egiteko xedez Batzordeak 2017ko abenduan aurkeztu zituen proposamen konkretuen inguruan egiten diren garapenak.

Fiskalitatearen alorrean, ECOFINen Lantaldeetan parte hartzen jarraituko dugu, Euskal Autonomia Erkidegoaren parte-hartzeari irekita daudenen kasuan. Hala, 2018an, Euskadirentzat interesa duten proposamen legegile guztien jarraipena egingo da; horien artean, honako hauek nabarmendu behar dira: zerga-oinarri komun kontsolidatu bat sortzea sozietateen gaineko zergarako; fiskalitate bidezkoago bat EBko jarduera digitalerako; eta BEZa modernizatzeko neurriak.

Politika komertzialari dagokionez, EB hirugarren herrialdeekin egiten ari den negoziatio komertzialen egoeraren jarraipena egingo da. Zehazki, aztertuko da ea EBk babes-neurririk ezarri dezakeen AEBetako administrazioak EBko altzairu eta aluminioaren inportazioei ezarri dizkien neurri protekzionistek erantzuteko.

2018an oso erne egon beharko dugu Nekazaritza Politika Bateratua 2020aren ostean erreformatzeko egiten diren proposamenen aurrean, eta arin erreakzionatu. Nekazaritza Politika Bateratua 1962. urtean hasi zen, eta, hortaz, Europako politika zaharrenetako bat da. Landa-eremuak eta bitarteko eremuak Europar Batasuneko lurraldearen % 91 dira, haren biztanleriaren % 60, haren balio erantsi gordinaren % 43, eta haren lanpostuen % 56. Beraz, ukalezina da sektorea oso garrantzitsua dela Europar Batasunak lortu ahal izan ditzan bere garapen ekonomikoaren helburuak, printzipio hauei jarraituz: kohesio eta elkartasuna, lanpostuen sorrera, elikagaien segurtasuna, klima-aldaketaren aurkako borroka, baliabide naturalen erabilera jasagarria, eta energia berriztagarriko trantsizioa.

Nekazaritza landa-ekonomia aurrera bultzatzen duten faktoreetako bat da: nekazaritzako ustiategiek 28 milioi pertsona enplegatzen dituzte EBko landa-eremuetan. Nekazaritzako ustiategien kopurua % 20 murriztu da azken urteetan: 2007an 13.6 milioi ziren, eta 2013an 10.8 milioi.

Euskaditik, NPBaren oraingo bi zutabeak mantentzea proposatzen da: Lehenengo Zutabea (zuzeneko laguntzak errentei), % 100 Bruselak finantzatuta; eta Bigarren Zutabea, kofinantziatuta. Halaber, proposatzen da hirugarren zutabe espezifiko bat sortzea (lehenengo zutabetik bereizita), merkatuen krisien aurrean sostengumekanismo gisa funtzionatzeko: ordainketa kontraziklikoak, errenta-aseguruak, eta zehaztu beharreko beste batzuk; funtsak Estatu kideen artean banatzeari dagokionez, proposatzen da banaketa ez egotea aurretik ezarrita, ezta status quoaren mende egotea ere, baizik eta efizienteentzat jotzen den ereduari erantzun diezaiola; gisa berean, proposatuko da subsidiariorotasuna handiagoa izatea eta arau komunak malguagoak izatea, NPBa eskualdeen aldetik kudeatzeari dagokionez, eskualdeen berezitasunak kontuan hartu ahal izateko.

Hori guztiaren helburua da NPBaren eskema iraupen luzekoa izatea eta etengabeko erreformen mende ez egotea. Hala, eskema horrek lagungarria izan behar du ustategietako belaunaldi-erreleburako eta nekazari gazteak oinarri egonkor batez errotzeko.

EBko garraio-politikaren muina Europaren barneko garraio-sare bat da (RTE-T), 28 Estatu kideak zeharkatzen dituen hazkundera eta lehiakortasuna sustatzeko. Garraio-azpiegituren finantziazioa hirukoiztu egin zen 2014-2020 garaian, 26.000 milioi eurora iritsita. Bide handi horietako bat Atlantikoko korridorea da: Lisboa eta Mannheim/Estrasburgo lotzen ditu, Iberiar Penintsula eta Frantzia zeharkatuz, Euskaditik pasatuz. Alor horretan, 2018rako aurreikusita dago proposamen berri bat egitea "Europa Konektatu" Mekanismoaren araudirako, 2021-2027 garairako; beraz, beharrezkoa izango da araudi hori aztertzea, eta hala badagokio aldaketak proposatzea, euskal azpiegituren mesederako.

EBri dagokionez, 2018 eta 2019 garrantzi handiko urteak izango dira, zeren argitaratu eta negoziatuko baitira Urte Anitzeko Finantza Esparrua (2021-2027) eta EBren finantziazio-tresna eta –programa guztiei buruzko proposamen legegileak, aipatutako programazio-aldirako (2021-2027).

Eusko Jaurlaritzak modu aktiboan parte hartuko du, bai Batzordearen proposamenak aurkeztu baino lehen -adibidez: kontsulta publikoetan parte hartuz- eta bai proposamen legegileak argitaratu ondoren; horretarako, legegileekin batera (Europako Parlamentua eta EBko Kontseilua) arituko da lanean, dela proposamen propioen bitartez dela gurekin kolaboratzen duten eskualdeetako saretan adostutako proposamenen bitartez.

Zehazki, kohesio-politikari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak bere jarrera jasotzen duen dokumentuaren alde egingo du, hots, ukitutako Sail guztiekin prestatutako dokumentuaren alde, eta Europako eskualde eta bazkideekin batera lan egingo du modu estuan, interes komunen defentsan: kohesio-politika sendo bat mantentzea, eskualde guztientzat; Europako lurralde-lankidetzarako programak defendatzea;

Europako espezializazio adimenduneko estrategien (RIS3) arteko sinergiak indartzea, eta abar.

Ingurumenari dagokionez, Batzordeak ekonomia zirkularraren alorrerako 2015ean argitaratu zuen paketean bildutako proposamenek indarrean jarraituko dute. Jadanik argitaratu diren proposamenek euren negoziazio-bidetik jarraituko dute (hondakinen kudeaketa eta birziklapena, produktu kimikoak, eta abar), eta, beste alde batetik, Batzordeak proposamena berriak aurkeztuko ditu (erabilera bakarreko plastikoak, uraren berrerabilpena). Arreta handiz jarraituko ditugu proposamen horiek, gogoan izanik, gainera, Euskadi ordezkari-tza autonomikoaz arduratuko dela Ingurumen Kontseiluan 2018ko lehenengo seihilekoan.

Ikerketa- eta berrikuntza-politikari dagokionez, aurreko ere Horizonte 2020 - Ikerketa eta Berrikuntzako Esparru Programa (2014 – 2020) da garrantzitsua. Azken tarterako (2018 – 2020) lan-programak 2017ko urrian aurkeztu ziren.

Horrez gain, baina, 2018ko beste ekimen garrantzitsu bat izango da Europako Batzordeak bere proposamena aurkeztuko duela Ikerketa eta Berrikuntzako Bederatzigarren Esparru Programarako (2021-2027); geroago, gainera, proposamena EBko beste instituzio batzuetan eztabaidatuko da. Proposamenaren aurretik, prestatze-lanen jarraipena egingo da, eta baita 2018. urtearen hasierarako – programaren diseinua elikatze- aurreikusita dauden kontsulta publikoen jarraipena ere.

Arreta berezia zuzenduko zaie jadanik iragarri diren nobedade jakin batzuei, hala nola Europako Berrikuntza Kontseiluaren sorrerari. Horizonte 2020ren 2018-2020 Lan Programak 2.600 milioi eurotik gorako aurrekontua esleitzen dio Europako Berrikuntza Kontseiluaren proiektu pilotuari, merkatuak sortzen dituen berrikuntzan zentratutako proiektuak eraginkortasun handiagoz sostengatzeko. Europako Berrikuntza Kontseiluaren proiektu pilotuak bikaintasun-arau berri bat sortu nahi du etorkizun handiko berrikuntzetarako, baina baita arriskua duten berrikuntzetarako ere. Horren asmoa da EB mailako sostengua kontzentratzea.

Halaber, jarraipena egingo zaie Europako Teknologia eta Berrikuntza Institutuak (EIT) abiatuko dituen bi deialdiei, hots, Fabrikazioaren eta Hiri-mugikortasunaren alorretan bi Berrikuntza eta Ezagutzako Komunitate (KIC, ingelesezko siglen arabera) berri eratzeko deialdiei.

Politika energetikoari dagokionez, 2018ko lehentasuna izango da 2016ko abenduan aurkeztutako europar guztientzako energia garbiari buruzko Paketea onartzea.

2017ko abenduan, Parlamentuak eta Kontseiluak behin-behineko akordio bat lortu zuten eraikinetako efizientzia energetikoari buruz. Estatu kideek epe luzerako estrategiak landu beharko dituzte, zeren bermatu behar baitute 2050ean EBko eraikinek ez dutela ia energiarik kontsumituko.

2017ko ekainaren 26an, Energiaren Ministroen Kontseiluak efizientzia energetikoaren proposamenari buruzko orientabide orokor bat adostu zuen. Proposamenak helburu lotesle bat ezartzen du Europar Batasunarentzat: efizientzia energetikoa % 30 izatea 2030an; horri begira, helburua eguneratu du, zeren Europar Kontseiluak gutxienez % 27ko efizientzia ezarri baitzuen helburu gisa 2030rako, gero % 30ra igotzeko xedez; gainera, kontuan hartzen du Europako Parlamentuaren ebazpenak % 40ko efizientzia eskatzen zuela helburu lotesle gisa. 2018ari begira, aurreikusten da negoziazioa Europar Kontseiluaren, Europako Parlamentuaren eta Batzordearen arteko trilogetan zentratuko dela.

EBko Gobernantzari buruzko Araudirako proposamenari dagokionez, Energiaren Ministroen Kontseiluak proposamenari buruzko orientabide orokor bat adostu zuen 2017ko abenduan. Orientabideak ezartzen du EBko Estatuak Energia eta Klimari buruzko Plan Nazional Integratuak prestatu behar dituztela -2012-2030 horizonterako eta horren osteko hamarkadetarako-, Energiaren Batasunaren bost dimentsioei lotutako helmuga eta ekarpenekin, alegia: deskarbonizazioa, efizientzia energetikoa, segurtasun energetikoa, barne-merkatua, eta ikerketa, garapen eta lehiakortasuna. 2018rako, aurreikusten da horien negoziazioa trilogetan egitea.

Berriztagarriei buruzko Zuzentarauaren proposamenak zenbait printzipio ezartzen ditu Estatu kideek bermatu ahal izan dezaten –Batzordearen iritziz-, modu kolektibo eta jarraituan, energia berriztagarrien kuota EBko energiaren azken kontsumoaren gutxienez % 27ra iritsiko dela 2030rako, modu errentagarrian, hiru sektoreetan: elektrizitatea, berokuntza, eta hozkuntza eta garraioa. Kontseiluak proposamenari buruzko orientabide orokor bat onartu zuen 2017an, eta espero da espediente hau 2018an tramitatuko dela –trilogetan-, Gobernantzaren Araudiarekin eta Efizientzia Energetikoaren Zuzentarauarekin batera, lehen esan dugun bezala.

Europar Batasuna da Parisko klima-aldaketari buruzko Akordioaren eta Garapen Jasangarriaren 2030 Agendaren motorra. Ekonomia zirkular eta hipokarbonikora zuzendutako mundu-trantsizioaren abangoardian dago. Energiaren Batasunaren Esparru Estrategiaren eta Parisko Akordioaren aplikaziora zuzendutako proposamen legegile gehienak aurkeztuta dituenez, 2018an Europar Batasuna horien aplikazioa azkartzera zuzendutako ekintza konkretuetan zentratuko da. Sarrera Berrien Erreserba (NER 300) Programak 2.100 milioi euro esleitu zizkien 39 proiektu oso berriztaileri. 2020. urtearen osteko garairako, aurreikusi da emisio-eskubideak erreserbatzea Berrikuntza funts bat sortzeko. Horren helburua da karbono-emisio txikiko teknologia oso berriztagarriak demostratzea energia-kontsumo handia duen industriarentzat, energia berriztagarrietarako eta karbonoa harrapatu eta biltegitzeko jardueretako. Modernizazio Funts batek energia-sektorearen modernizazioa sostengatuko du sarrera txikiak dituzten hamar Estatu kideetan.

Beste alde batetik, 2018rako aurreikusten da kontsulta publiko bat irekitzea EBren klima-aldaketari egokitzeko Estrategiaren Ebaluazioaren inguruan, eta baita Europar Batasunak Klima Ekintzari begira epe luzera (2050) duen Estrategiaren inguruan ere.

Industria sendo eta lehiakorra izatea funtsezkoa da hazkundera eta enplegua EBn bermatzeko. Horregatik, Europako Batzordeak helburutzat hartu du industriak EBko BPGan duen pisua handitzea, 2020an % 20ra iritsi dadin. 2017ko irailean, Juncker presidenteak politika industrialaren estrategia berriztatua aurkeztu zuen, industriaren ahaleginak sostengatzeko, berau munduko liderra izan dadin berrikuntza, digitalizazio eta deskarbonizazioaren alorretan. Estrategia berriztatu horrek bi ikuspegi uztartuko ditu: ikuspegi horizontal bat (merkatu digital bateratua, industriaren digitalizazioa, ekonomia zirkularra, karbono gutxiko ekonomia, Europarentzako kapazitateen agenda, eta abar...) eta ikuspegi sektorial bat (estrategia espaziala, Europako defentsa-funtsa, eta abar). Batzordeak 2018ko udaberriko Europar Kontseiluan aurkeztuko du politika industrialaren estrategia berriztatu hori, neurri konkretuak jasoko dituen ekintza-plan batekin batera. Neurri horiek Europako Batzordearen 2018rako lan-programan islatuko dira. Euskaditik arretaz jarraituko ditugu proposamen horiek, batez ere –Basque Industry 4.0 estrategiaaren ildotik- enpresa txiki eta ertainei euren eraldaketa digitalean laguntzen dietenak.

Merkatu digital bateratua lortzeari dagokionez, Batzordeak horren lorpenerako estrategia bitarteko berrikuspenera aurkeztu zuen 2017ko maiatzean. Euskaditik jarraituko dugu Batzordeak hiru eremu nagusitan aurkezten dituen proposamenen jarraipena egiten: datuen ekonomiaren funtzionamendu onerako beharrezkoa den esparruaren sorrera; online plataformen sustapena; eta gorabehera zibernetikoei aurre egiteko Europa mailan beharrezkoak diren tresnen hobekuntza.

Datozen urteetan funtsezkoak izango dira Industria Kultural eta Sortzaileak(IKSak), diplomazia kulturala eta kulturaren zein ondare kulturalaren nazioarteko proiektioa. Horren erakusgarria da 2018. urtea Ondare Kulturalaren Europako Urte izendatu dela. Horri begira, Euskadik parte hartuko du programatutako ekimenetan. Europako instantziak aintzatetsi dute Euskadik IKSetan duen lidergo-potentziala (CREADIS3 proiektuaren eta RICC sarearen bitartez); izan ere, jadanik emaitza konkretuak lortu ditu posizionamendu eta proiektio aldetik. 2018an, Europako instituzioek berraztertuko dituzte Europako agenda kulturala eta IKSen eskualde-potentziala, eta aurrera egingo dute diplomazia kulturalaren europar estrategian; horregatik, Euskadi jadanik ari da kolaboratzen europar bazkideekin, aukerak irekitzen jarraitzeko. IKSen pisuaren ildotik, 2018. urtea funtsezkoa izango da ohitura kulturalen adierazleen birformulaziorako, IKTBen eta publiko berriaren errealitatea hobeto egokitzeko; funtsezkoa izango da, halaber, kulturari eta IKSei aplikatutako MFF 2021-2027 esparru berriaren jarraipenerako. Lehentasunezkoa da Etxepare Institutua EUNIC Brusela sarean finkatu ahal izatea eta EUNIC globalaren kide elkartu bilakatzea; horrekin batera, lehentasunezkoa da Belgikako agintaritza publikoekiko loturak sendotzea.

Hezkuntzaren alorrean, Goteborgeko Goi Bileran horri buruz adostutako konpromisoen ostean, lehentasunezkoa da merkatuen erronken jarraipena egitea eta euskal hezkuntza-sektorearen nazioartekotze eta proiektioan aurrera egiten

jarraitzea, bai Lanbide Heziketaren aldetik eta bai goi mailako hezkuntzaren aldetik. Oso garrantzitsua da harremanak eta ekimen bateratuak finkatzen jarraitzea, eta baita eskualde-lankidetzako proiektuak ere finkatzea, hezkuntzaren alorreko gai hauetan: berrikuntza pedagogikoa, LH duala, unibertsitate-enpresa aliantza, eta sektorekako espezializazioa. 2018an, EBk 2021-2027 garairako hezkuntza-agenda aurkeztu du, eta modu bereziki proaktiboan jarraituko dugu gertutik LH eta unibertsitateen europar sarea, Euskadi haren partaidea izan dadin.

Lankidetzaren eremuan, 2018. urtea funtsezkoa izango da. Izan ere, 2030 Agendaren jarraipenerako nazioarteko Foroa egingo da, eta EBk iragarri du Europako tokiko eta eskualdeetako agintaritzek funtsezko rola jokatu dutela. Europako instituzioek, tokiko eta eskualdeetako agintaritzekin eta GKEekin batera, zenbait ekintza abiatu dituzte kontuak emateko eta GJHak lortzeari begira lurraldeek egindakoaren jarraipena eta horren eragina aztertzeko. Euskadik Europako lankidetzaren deszentralizatuaren birformulazioa defendatzen du, lankidetzaren eredu tradizionala gaindituz, hau da, uste du lankidetzak europar dimentsioa eta ikuspegi berritzailea eta lurralde mailakoa izan behar dituela, eta lurraldeko eragileak egituratu behar dituela, 2030 Agendari hobeto egokitzen zaion erantzun bat eman ahal izateko.

1. ERANSKINA**EUSKADIK ESKUALDEETAKO LANTALDEAREN OSOKO BILERETAN IZANDAKO PARTE-HARTZEA LABURBILTZEN DUEN KOADROA**

Ekitaldia	Ordezkaría	Jarduera	Data
121. Osoko bilkura	Marian Elorza, Kanpo Harremanetarako Idazkari Nagusia	-ALDE Talde Politikoaren Bilera – espainiar Ordezkaritzaren Bilera	2017.02.08
		-Osoko Bilkura	2017.02.09
122. Osoko bilkura	Marian Elorza Kanpo Harremanetako Idazkari Nagusia	EZ ZEN EGON	
123. Osoko bilkura	Marian Elorza Kanpo Harremanetako Idazkari Nagusia	-ALDE Talde Politikoaren Bilera – espainiar Ordezkaritzaren Bilera	2017.05.11
		-Osoko Bilkura	2017.05.12
124. Osoko bilkura	Marian Elorza Kanpo Harremanetako Idazkari Nagusia	-ALDE Talde Politikoaren Bilera – espainiar Ordezkaritzaren Bilera	2017.07.12
		-Osoko Bilkura	2017.07.13
125. Osoko bilkura	Marian Elorza Kanpo Harremanetako Idazkari Nagusia	-ALDE Talde Politikoaren Bilera – espainiar Ordezkaritzaren Bilera	2017.10.10
		-Osoko Bilkura	2017.10.11
126. Osoko bilkura	Marian Elorza Kanpo Harremanetako Idazkari Nagusia	-ALDE Talde Politikoaren Bilera – espainiar Ordezkaritzaren Bilera	2017.11.30
		-Osoko Bilkura	2017.12.01

2. ERANSKINA**EUSKO JAURLARITZAK ESKUALDEETAKO LANTALDEAN AURKEZUTAKO ZUZENKETAK**

Txostenaren izena	Prestatutako zuzenketak	Aurkeztutako zuzenketak	Onartutako zuzenketak
COTER-VI-016 MUGA-ESKUALDEETAKO GARRAIOA	2	2	1
COTER-VI-018 PORTU-EREMUAK BIZIBERRITZEA	2	2	2
ECON-VI-014 INBERTSIOAREN DEFIZITA	5	2	1
ECON-IV-18 AURREKONTU-AHALMENA EDB-AN	1	0	-
ENVE-VI-014 URA KUDEATZEKO SISTEMA	2	2	2
ENVE-VI-016 LIFE PROGRAMAREN EBALUAZIOA	2	2	2
NAT-IV-010 ALKOHOLARI BURUZKO ESTRATEGIA	14	12	11
SEDEC-VI-017 HARREMAN KULTURALEN ESTRATEGIA	1	1	1
SEDEC-VI-018 TELEKOMUNIKAZIOEN PAKETEA	2	2	2
SEDEC-VI-019 AUTORE ESKUBIDEAK MERKATU BATERATUAN	2	1	1
SEDEC-VI-021 RIS3 ESTRATEGIAK	8	7	7

KHINren 2018ko Jardueren txostena

NAT-VI-015 SENDAIKO ESPARRUARI BURUZKO EKINTZA PLANA	2	2	2
RESOL-VI-021 CDR-REN LEHENTASUNAK EE 2018 PROGRAMARI BURUZ	2	1	1
CIVEX-VI-018 EB HANDITZEKO ESTRATEGIA 2016-2017	2	2	2
COTER-VI-020 BATASUNAREN AURREKONTU OROKORRARI APLIKATU BEHARREKO ARAUAK	2	2	2
COTER-VI-015 KOHESIO POLITIKAREN ETORKIZUNA 2020AREN OSTEAN	16	10	7
SEDEC-IV-023 EUROPAKO GAZTERIARENGAN INBERTITZEA	2	2	2
SEDEC-020 GIZARTE-BERRIKUNTZA HAZKUNDE ETA ENPLEGURAKO	2	2	2
SEDEC-VI-022 BIOEKONOMIAREN TOKIKO ETA ESKUALDEKO DIMENTSIOA	15	15	13
RESOL-VI-024 EB-REN ETORKIZUNARI BURUZKO LIBURU ZURIA	5	5	4
CIVEX-VI-023 MIGRAZIOA ERDIKO MEDITERRANEOAREN BIDEAN	4	4	4
COTER-VI-021 EUROPAR ESTRATEGIA EMISIO GUTXIKO MUGIKORTASUNERAKO	24	22	18
NAT-VI-021 NPB-A 2020AREN OSTEAN	12	7	6
SEDEC-VI-026 HORIZONTE 2020 PROGRAMAREN TOKIKO ETA ESKUALDEKO DIMENTSIOA	3	3	3

KHINren 2018ko Jardueren txostena

CIVEX-VI-025 HAUR MIGRATZAILEEN BABESA	8	8	6
COTER-VI-027 GARRAIOAREN EKM-AREN ETORKIZUNA	1	1	1
NAT-VI-020 EUROPAR POLITIKA BAT HIGIEZIN- ONDAREAREN ERABERRITZE SISMIKORAKO	1	1	1
SEDEC-VI-027 GIZA ESKUBIDEEN ETA EUROPAKO GIZARTE- DIMENTSIOAREN EUROPAR ZUTABEA	6	5	5
ECON-VI-024 LURRALDE-ERRESILIENTZIA GLOBALIZAZIOAREN AURREAN	6	6	4
CIVEX-VI-022 EB-KO HIRITARTASUNARI BURUZKO TXOSTENA 2017	5	5	4
SEDEC-VI-028 GURASOEN ETA ZAINTZAILEEN FAMILIAKO ETA LANEKO BIZITZA UZTARTZEA	6	4	2
ECON-VI/025 EKONOMIA ETA DIRU BATASUNA HEMENDIK 2025ERA SAKONTZEARI BURUZKO HAUSNARKETA DOKUMENTUA	2	1	1
GUZTIRA	168	141	121

3. ERANSKINA

**BESTE KIDE BATZUEK PRESTATUTAKO ETA EUSKADIREKIN BATERA
ESKUALDEEN LANTALDEAN AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Zuzenketaren eragilea	Aztertutako zuzenketen kopurua	Sostengatutako zuzenketen kopurua
Andaluzia	65	27
Aragoi	29	12
Asturias	28	12
Balearrak	38	30
Kanariar Uhartek	39	35
Gaztela - Mantxa	27	25
Gaztela eta Leon	29	11
Katalunia	68	45
Extremadura	57	40

KHINren 2018ko Jardueren txostena

Galizia	33	12
Errioxa	74	45
Madril	22	9
Murtzia	26	13
Nafarroa	11	7
Valentzia	19	12
ALDE talde politikoa	56	22
GUZTIRA	621	357

4. ERANSKINA

EUROPAR BATASUNEN GAI EKONOMIKO ETA FINANTZARIOEN KONTSEILUARI (ECOFIN) ATXIKITAKO LANTALDEEN BILERAK, EUSKADIREN PARTE-HARTZEA IZAN DUTENAK

1. Zergei buruzko D4 Taldeak egindako bilerak, zuzeneko zergak eta zeharkako zergak jorrazteko:

- Zuzeneko zergak: zerga-elusioaren praktikei aurre egiteko arauak, hirugarren herrialdeekiko asimetria hibridoak dagokienez; zergapetze bikoitzeko auziak EBn ebazteko mekanismoak; sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarri komuna; Estatu kide desberdinetako sozietate elkartuen artean egindako interes- eta kanon-ordainketei aplikatu beharreko zerga-erregimen komuna; zuzeneko fiskalitatearen erronkak ekonomia digitalean; eta informazioaren truke automatikoaren derrigorrezkotasuna, fiskalitatearen eremuan, komunikazioaren mende dauden mugaz gaindiko mekanismoak dagokienez.

Bileren egunak: urtarrilak 18, otsailak 1, otsailak 8, otsailak 16, martxoak 3, martxoak 14, martxoak 23, martxoak 27, apirilak 26, apirilak 27, maiatzak 30, irailak 21, irailak 27, urriak 3, urriak 16, urriak 25, azaroak 8 eta azaroak 15. Guztira, 18 bilera.

- Zeharkako zergak: Zerbitzu-prestazioen eta ondasunen urruneko salmenten gaineko BEZa; elkarlan administratiboa eta iruzurraren aurkako borroka, BEZaren alorrean; liburu, egunkari eta aldizkariak aplikatutako BEZ tasak; subjektu pasiboaren inbertsio-mekanismo bat aldi baterako aplikatzea, ondasun eta zerbitzuak maila jakin batetik gora entregatzeari dagokionez; eta zerga bereziak.

Bileren egunak: urtarrilak 11, urtarrilak 26, otsailak 22, maiatzak 19, uztailak 6, irailak 6, irailak 13 eta urriak 5. Guztira, 8 bilera.

2. D5 Taldea, Jokabide Kodea: enpresen fiskalitateari eta dagozkion azpialdeei buruzkoa.

- Jokabide Kodea, enpresen fiskalitateari buruzkoa:

Bileren egunak: urtarrilak 25, apirilak 5, ekainak 8, uztailak 20, irailak 18, urriak 17 eta azaroak 22. Guztira, 7 bilera.

- Jokabide Kodearen azpialdeak.

Bileren egunak: urtarrilak 19, otsailak 24, martxoak 1, martxoak 18, urriak 30 eta azaroak 16. Guztira, 6 bilera.

5. ERANSKINA

POLITIKA PUBLIKOEN ARLO BATZUETAKO EKITALDI ETA BILEREN INGURUKO ZENBAIT JARDUERA

- Urtarrilaren 17an, Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordeak antolatutako entzunaldi publiko batean izan ginen; gaia: sozietateen gaineko zergaren erreformaren paketea.
- Urtarrilaren 23an, Gizarte-eskubideen europar Zutabearen etorkizunari buruzko konferentzia parte hartu genuen; antolatzailea: Europako Batzordea.
- Urtarrilaren 25ean, Nazioarteko Harremanen Frantziar Institutuan antolatutako konferentzia honetan izan ginen: “Tokiko demokrazia Europan: populismo eta xenofobiari aurre egiten”.
- Otsailaren 10ean, Odysseus sare akademikoak antolatutako konferentzia batean parte hartu genuen; helburua zen immigrazio eta asiloaren alorrean EBn gauzatutako garapenak aztertzea, etorkizunean egon daitezkeen joerez eztabaidatzeaz batera.
- Otsailaren 14an, Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordeak antolatutako entzunaldi publiko batean izan ginen; gaia: herriak eta landa-garapena.
- Otsailaren 16an, BEZa EBren barneko operazioetan eta merkataritza elektronikoko aplikatzeari buruzko konferentzia batean izan ginen; antolatzailea: Espainiaren Belgika eta Luxenburgoko Merkataritza Ganbera Ofiziala.
- Otsailaren 16an, CRPMko kohesio-taldeak DG REGIOko Zuzendari nagusia Marc Lemaitrerekin egin zuen bilera batean parte hartu genuen.
- Otsailaren 28an, “EU Industry Day” jardunaldian izan ginen; antolatzailea: Europako Batzordearen Barne Merkatu, Industria, ETE eta Ekintzaitzaren Zuzendaritza Nagusia.
- Martxoaren 1ean, “Zehaztapeneko nekazaritzari” buruz Europako Parlamentuan egin zen entzunaldi publiko batean izan ginen.
- Martxoaren 8 eta 9an, 2017ko Emakumeen Nazioarteko Egunean parte hartu genuen, Europako Parlamentuan.
- Martxoaren 17an, Europako Batzordearen modernizazio industrialaren alorreko espezializazio adimenduneko plataformaren Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bileran parte hartu genuen.
- Martxoaren 29an, hirugarren herrialdeetako nazionalen integrazioa zuzendutako europar finantziarioari buruzko jardunaldi informatibo batean parte hartu genuen; antolatzailea: Europako Batzordearen Migrazio eta Barne-gaietako Zuzendaritza Nagusia.
- Martxoaren 29an, Arku Atlantikoko Batzordearen (AAB) Estrategia Atlantikoko Taldearen bileran parte hartu genuen.

- Apirilaren 26an, diru-laguntzak emateko programa baten aurkezpenean izan ginen, Norvegiaren EBko ordezkartzaren egoitzan. Gazte-langabeziari aurre egiteko programa bat da, Europako Esparru Ekonomiko hiru Estatuk eratua, hots, Norvegia, Islandia eta Liechtensteinek eratua.
- Apirilaren 25etik 27ra, Bruselako SeaFood Azokako stand batean parte hartu genuen.
- Apirilaren 28an, Abangoardia Ekimenaren beste ordezkari batzuekin batera, bilera bat izan genuen kabinete batzuetako kideekin (Juncker, Cretu, Moedas) eta Europako Batzordearen Barne Merkatu, Industria, ETE eta Ekintzaitzaren Zuzendaritza Nagusiko Fabrikazio Aurreratuko Zuzendariarekin.
- Maiatzaren 2an, Eskualdeetako Lantaldeak antolatutako tailer batean parte hartu genuen; gaia: industriaren etorkizuna Europar Batasunean.
- Maiatzaren 4an, “Nessie” proiektua abiatzeko bilera izan ginen, DG EASME-n; Europako Batzordearen DG MAREk finantzatuta, proiektua Abangoardia Ekimenean gauzaturako lankidetzaren bidez sortu da.
- Maiatzaren 4an, Eskualdeetako Lantaldetan antolatutako tailer batean izan ginen; gaia: landa-sektorea 2020. urtearen ostean.
- Maiatzaren 16an, CRPMko kohesio-taldeak DG REGIOko Zuzendari Eric Von Breskarekin egin zuen bilera batean izan ginen.
- Maiatzaren 17an, jardunaldi batean parte hartu genuen Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearen egoitzan; gaia: nola saihestu laguntza humanitarioaren kriminalizazioa eta nola sustatu onarpen humanitarioa.
- Maiatzaren 24an, entzunaldi publiko batean parte hartu genuen Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearen egoitzan; gaia: lehia leiala eta hazkundera sustatzen dituen zega-sistema.
- Maiatzaren 31n, hiriei eta elikadura-sistemen berrikuntzari buruzko ekitaldi batean izan ginen; antolatzailea: Europako Batzordearen Food2030.
- Ekainaren 13an, landa-eremuetako baliabideen efizientziari buruzko tailer batean parte hartu genuen; antolatzailea: Europako Batzordearen Landa-garapeneko Europar Sarea.

- Ekainaren 22an, desgaitasunak dituzten pertsonen enpleguari buruzko entzunaldi publiko batean parte hartu genuen, Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordean.
- Ekainaren 28an, EBko Funtsezko Eskubideen Agentziaren 2017ko txostena aurkezteko konferentzia batean parte hartu genuen.
- Ekainaren 29 eta 30ean, ERIAFF (European Regions for Innovation in Agriculture, Food and Forestry) sarea osatzen duten eskualdeen urteko konferentzian eta tailerretan parte hartu genuen, gai hauek jorratzeko: hiri- nekazaritza, elikadura-politika osasungarri eta jasangarriak, eta Big Data.
- Uztailaren 11n, Abangoardia Ekimenaren beste ordezkari batzuekin batera, bilera bat egin zen Lena Andersson Penchekin: Europako Batzordeko Eskualde Politikako Zuzendaritza Nagusian lurralde-lankidetzaz eta makroeskualdeez arduratzen den Zuzendaria.
- Irailaren 7an, entzunaldi publiko batean izan ginen Europako Parlamentuan; gaia: Urte anitzeko Finantza-esparrua eta Arrantza 2020tik aurrera.
- Abuztuaren 28an, Vanguard Initiative Asbl ekimena sortu zuten eskualdeen Lehenengo Batzar Nagusian parte hartu genuen.
- Irailaren 11n, entzunaldi publiko batean parte hartu genuen Europako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren egoitzan; gaia: Europaren gizarte-dimentsioari eta gizarte-eskubideen europar Zutabeari buruzko Hausnarketa-dokumentua, Europaren etorkizunari buruzko eztabaida globalaren baitan.
- Irailaren 25ean, Europako Batzordeak antolatutako “Grow your region” konferentziaren aurkezpenean parte hartu genuen, Eskualdeetako Lantaldearen egoitzan.
- Irailaren 26an, CRPMko Klima-aldaketari buruzko Task Forcek antolatutako ekitaldi batean parte hartu genuen; gaia: klima-aldaketa arintzea.
- Irailaren 27an, Natura 2000 sarearen baso-jarduna jorratzeko ekitaldi batean parte hartu genuen; antolatzailea: European Forest Institute.
- Irailaren 28an, Natura 2000 sarearen tailer honetan parte hartu genuen: laguntza-aukeren aprobetxamendu eraginkorra, landa-garapenari buruzko politikaren esparruan; antolatzailea: Europako Batzordearen Landa-garapeneko Europar Sarea.
- Urriaren 10ean, desgaitasunak dituzten emakumeen egoera eta eskubideei buruzko entzunaldi publiko batean izan ginen, Europako Parlamentuan.
- Urriaren 10ean, Hiri eta Eskualdeen Europar Astearen baitan, “Scirocco” proiektuaren aurkezpenean parte hartu genuen -Osakidetza eta Kronikgune proiektu horren bazkide dira-.
- Urriaren 11n, EBko Genero Berdintasunaren 2017ko Indizea plazaratzeko ekitaldian izan ginen; indizearen egilea Genero Berdintasunerako Europar Institutua da.
- Azaroaren 7an, NEIKEReko Zuzendari Nagusi Leire Barañanok bioekonomia zirkularrari buruzko foro batean parte hartu zuen; antolatzailea: European Forest Institute.

- Azaroaren 16an, Erkidegoko Funtsen Zuzendari Nagusiarekin REPERen egindako bilera batean parte hartu genuen.
- Azaroaren 21an, eurodiputatuen arteko topaketa batean parte hartu genuen, bertan azaldu baitzen EB gauzatzen ari den nazioarteko negozioazio komertzialean egoera.
- Azaroaren 22an, Suediaren EBko Ordezkaritza Iraunkorrean, herrialde nordikoetako (Suedia, Norvegia, Danimarka, Finlandia eta Islandia) kapital eta finantziazioa eskuratzeari buruzko mintegi batean parte hartu genuen.
- Abenduaren 18 eta 19an, nekazaritzaren perspektibei buruzko jardunaldietan izan ginen; antolatzailea: Europako Batzordearen DG AGRI.

6. ERANSKINA

2017AN EUSKADIREN LANKIDETZA IZAN DUTEN SARE NAGUSIAK

- ERLAI: Asilo eta Immigrazioari buruzko Europako Tokiko eta Eskualdeetako Agintaritzak
- Covenant of Demographic Change (Aldaketa Demografikoaren aldeko Ituna)
- Zahartze Aktibo eta Osasungarriaren alorrean Berriztatzeko Europar Elkarte
- CRPM (Periferiako eta Itsasertzeko Eskualdeen Konferentzia): Migrazioaren kudeaketari buruzko lantaldea; kohesioari buruzko lantaldea; Klima-aldaketari buruzko Task Force.
- Abangoardia Ekimena, gaur egun Europako 32 eskualde industrializatu biltzen dituen. Euskadik 3 lantaldetan parte hartzen du: Eragin Politikoa, Komunikazioa, eta Ekintza pilotuen monitorizazioa
- CORAL (Community of Regions for Assisted Living)
- ERRIN (European Regions for Research and Innovation)
- ERIAFF Sarea (European Regions for Innovation in Agriculture, Food and Forestry), nekazaritza, elikadura eta baso-gaietan berritzaileak diren europar eskualdeak biltzen dituen
- EUROMONTANA sarea, mendi-inguruneetarako europar elkarte. Euskadik du haren presidentzia.
- CRPMren (Periferiako eta Itsasertzeko Eskualdeen Konferentzia) Arku Atlantikoko Batzordearen baitan: Garraio, Berrikuntza, Estrategia Atlantiko, Arrantza, Turismo eta Itsas Energia Berriztagarriari buruzko Lantaldeak, eta Lankidetzaren Transatlantikoari buruzko Task Force.
- Jatorrizko Produktuen Europako Eskualdeen Elkargoa (AREPO)
- GEORik gabeko Eskualdeen Sarea
- REGAL (Gastronomia eta Elikaduraren aldeko Eskualdeak)
- RICC Sarea (Regional Initiative for Culture and Creativity). 24 eskualde biltzen ditu IKS-en eta Ris3ren alorrean, eta Euskadi koliderra da.
- NPLD Sarea/Network to Promote the Linguistic Diversity: bai Eusko Jaurlaritzaren eta bai Bizkaiko Foru Aldundia sarearen partaideak dira.
- EARLALL Sarea/ European Association of Regional and Local authorities for Lifelong Learning. Eusko Jaurlaritzaren LHko Sailburuordetza sarearen presidentea da.
- NECSTOUR Sarea/ Network of European Regions for Competitive and Sustainable Tourism
- EUNIC Sarea: EBko Kultura Institutu Nazionalak biltzen dituen sarea. Etxepare Institutua sarearen kidea da.
- EAFA: Ikaskuntzarako Europar Aliantza
- PLATFORMA: Tokiko eta eskualdeetako agintaritzen europar plataforma, lankidetzaren deszentralizatuaren alorrean diharduena. Euskal Fondoa beraren kidea da, Lankidetzaren Euskal Agentziarekin batera.